# ttipi-ttapa

1995eko uztailak 13 • 162. zenbakia



Erreportaia
**IGERILEKUAK**
**Uda parteko erreinuak**

## MANOLO LIZARDI

# BERTIZ PARTZUERGO TURISTIKOKO GERENTEA

KARMELE



Txaruta Pilota Elkarteko talde honek hartu du parte Euskal Ligan. Argazkian ageri direnetatik, bi bikote txapeldun gelditu dira eta bertzea azpitxapeldun.

Argazkia: MENA

*Txaruta Pilota Elkarteak eskertu nahi die Doneztebe eta Elizondoko CAN-Nafarroako Aurrezki Kutxako bulegoei, pilotarekin agertu duten interesa eta eman duten laguntza. Esker Mila.*

TXARUTA PILOTA ELKARTEA

CAN NAFARROAKO AURREZKI KUTXA

DATUAK..........

❖ *Manolo Lizardik 26 urte ditu, Elizondokoa da eta Bertizko Partzuergo Turistikoaren gerente berria da.*

❖ *Enpresaritza ikasi zuen eta ekainaren 1ean hasi zen lanean Bertizen.*

❖ *Lanbide berria interesgarritzat jotzen du, eta hasiera honetan eskuartean dituen xehetasunetaz jabetzeak eramaten dizkio ordurik gehien.*

❖ *Garrantzia haundia ematen dio alde desberdinak Partzuergoaren martxarekin gehiago inplikatzeari.*

TESTUA : **JOXEMANUEL IRIGOIEN**
ARGAZKIA: **KARMELE TOLOSA**

# Manolo LIZARDI:
# «Bertizko Partzuergo Turistikoan kontzientziazio lana egin beharra da»



**ZEIN DIRA MOMENTU HONETAN ESKUARTEAN DITUZUN EGITASMOAK?**

Kontua zera da: hauteskundeak pasa berriak direla, oraindik ez dugula egin Batzar Orokorrik ez Administrazio Kontseiluaren bilerarik eta ez dugula presidenterik ere. Hortaz, lehenik beraiek finkatu beharko dituzte beren asmoak eta geronik bideratu egin beharko ditut eta zein diren gauzatzen ahal direnak ikusi.

**FINKATU DA EGUNIK BATZAR OROKORRA EGITEKO?**

Herriko Etxeak hasiak dira ordezkariak izendatzen, eta beraien esku dagoenez, denak izendatuak direnean, orduan lehenbailehen egin beharko.

**BERAZ, BITARTE HONETAN GUZI HONEKIN KONTAKTU HARTZEN IBILIKO ZARA?**

Bai. Kontaktu hartzen, jendeekin solasten, Nafarroako Gobernukoekin, eta bidenabar, ikusten zertan ari ziren azken aldiotan. Azken finean ni neu prestatzen eta aurrekontuak egiten bainan beti ere Batzar Orokorrari begira.

**ETA ORAINARTE IKUSI DUZUNAREKIN, NOLA IKUSTEN DUZU PARTZUERGOAREN EGOERA?**

Ikusi dudanez, lan aunitz egin behar da jendea kontzientziatzen. Uste dut udalak orain arte baino gehiago inplikatu beharko luketela, eta baita bertze asoziazioak ere. Lehen, Komisio Sektorialen oinarriak ezarri ziren, bainan ez zen deus egin. Hoiek bultzatzea izaten ahal da inplikazio hori pizteko bidea. Gai horrek lehentasuna du niretzat, eta gero, nere lana izanen da, doike, Herriko Etxeetatik pasatu eta erakustea gauzak nola egin behar diren, beraien ideak hartu, eta horrekin batera, turismoa urte sasoi guzietara zabaltzea eta ez bakarrik uda partera, beti ere, gure nortasuna, kultura eta hizkuntza galdu gabe.

> *«Komisio Sektorialen oinarriak ezarri ziren bainan ez zen deus egin. Hoiek bultzatzea izaten ahal da jendea Partzuergoarekin inplikatzeko bide bat»*

**LEHENGO GERENTEAK MARTXAN UTZITAKO PROGRAMAREN BAT EDO BADA?**

Hemen ez dago deus. Lana egiteko bai, eta gauza atzeratuak zirenez, ni sartu eta berehala egin behar izan ditut epeak akitzen zirelakoz; dirulaguntzak hartzeko tramitazio eta aurrekontuak... Hoiek egin dira, baina presaka eta lasterka eta Batzar Orokorrak finkatu beharko ditu behin betikoak.

***Udako sargoria nagusitzen denean, ur frexkagarria benetan estimatua bilakatzen da bere buruari gozamena eman nahi dion nornahirentzat. Eta gozamen kontuetan, jakina denez, sofistikazioari muzin egitea ez da oraindik asmatu. Ikusi bertzenaz azken urteotan gure herrietan eraiki diren pistzina publiko guziak.***

# IGERILEKUAK UDA PARTEKO ERREINUAK

Halaxe da: azken zortzi urteotan 12 pistzina-putzu berri egin dira inguru honetako 5 herritan. Gauzak horrela, berriki arte hain bisitatuak ziren errekako putzuen konkurrentzia kasik desagertu egin da herri guzi hoietan. Nolanahi ere, gauzak ez dira horretan gelditzen. Nafarroako Gobernuko Osasun Publikorako Institutuak berriki argitaratu duen estudioan ageri denez, hemengo errekek ez dute '*osasun kalitate nahikorik*'. Ikerketa horren egileek diotenez, 'Bainurako Ez Egokia' izateak, *'duten kutsadura mailagatik osasunerako kaltegarria izaten ahal direla erran nahi du, batez ere, larru azaleko eritasunak hartzen ahal direlako'*.

Alderdi honetan hiru tokitan hartu dituzte azterketarako muestrak. Ezkurrako errekan bi, eta hirugarrena Leurtzako urtegietan, Urrotzen, eta hiruak emaitza negatiboa eman dute. Azterketa hauetan bi parametro erabili dituzte; batetik bistara ikusten dena, eta bestetik laboratorioko analisia. Lehenengo parametroari dagokionez, uraren usaia, kolorea eta gardentasuna, eta



urek duten olio mineral, alkitran eta osasunerako kaltegarriak diren beste elementuen kopurua neurtzen da. Laboratorio analisietan, bertzalde, ph-aren maila, gorotz estreptokokoen kopurua eta antzeak neurtzen dituzte. Gainera, inguruak berak dituen osasun eta higiene baldintzak ere baloratu dituzte. Beraz, emaitza negatibo hoiek ikusirik, datu bat azpimarra daiteke: dutena baino zainketa haundiago behar dutela hemengo errekek. Azken finean, herrietako ur-zikinak eta bertzelako isurketak limitatu eta kontrolatu egin behar direla errekara isuri baino lehen.

Gauza guzi horiek kontutan harturik, gero eta gehiago, pistzinak dira uda parteko erreinuak.

**Igeriketa ikastaroak**

Urtero bezalatsu, pistzina guzietan antolatuak daude ikastaroak, 3 aste edo hilabete batekoak bakoitza, batzutan bakarra izanen dena, eta bertze batzutan, bi ere eginen dituzte sasoi honetan. Monitoreek kontatu digutenez, gaztetxoenak dira ikastaroetara gehien apuntatzen direnak, bainan hala ere, azken urteotako joerari jarraiki, gero eta pertsona heldu gehiago ari da animatzen igeritan ikastera edo dakitena hobetzera. Orohar, adin guziak batera hartuta, kopuru osoak gora egin omen du.

Pistzina publikorik ez duten herrietakoak, ordea, taldetan antolatzen dira hurbilen duten igerilekuetara joateko. Urdazubi, Zugarramurdikoak eta Baztango herrietakoak Elizondo eta Lekarozko igerilekuetara; Bertizaranakoak eta Malerrekakoak Doneztebera; Aresokoak Leitzara, Arantzakoak Igantzira eta Goizuetakoak Hernanira. Izan ere, igeriketa ikastaroak bakarrik uda partera mugatzen dira hemen. Elizondoko 'El Pilar'en dago inguruko igerileku estali bakarra eta ez dago momentuz ez dago funtzionamenduan. ■

## IGERILEKUAK, NON ETA NOLAKOAK (*)




(*) Igerileku naturalei dagokionez, erreportai honetan Nafarroako Gobernuko Osasun Publikorako Institutuak kontrolatutakoak bakarrik hartzen dira kontutan, nahiz eta guzi hauek 'BAINURAKO EZ EGOKIA'ren kalifikazioa duten gaur egun.

### PISTZINAK

| | Herria | Zenbat igerileku | Neurriak | Noiz egina | Sasoirako Abonoak | | | Ikastaroak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Bera | Helduendako (1) | 25 x 12,5 | 1987 | 3.980 | 1.590 | 675 | Bai |
| 1 | Bera | Haurrendako (2) | - | 1987 | | | | Bai |
| 2 | Doneztebe | Helduendako (1) | 25 x 12,5 | 1974 | 4.150 | 2.500 | 1.400 | Bai |
| 3 | Elizondo | Helduendako (1) | 50 x 25 | 1972 | 5.000 | 3.500 | 1.250 | Bai |
| 3 | Elizondo | Haurrendako (1) | 10 x 4 | 1972 | | | | Bai |
| 4 | Etxalar | Helduendako (1) | 25 x 10,5 | 1994 | 4.000 | 2.000 | 1.000 | Bai |
| 4 | Etxalar | Haurrendako (1) | - | 1994 | | | | Bai |
| 5 | Igantzi | Helduendako (1) | 25 x 12,5 | 1995 | 3.500 | 2.000 | 1.000 | Bai |
| 5 | Igantzi | Haurrendako (1) | - | 1995 | | | | Bai |
| 6 | Leitza | Helduendako (1) | 25 x 17 | 1982 | 3.300 | 2.000 | 1.400 | Bai |
| 6 | Leitza | Haurrendako (1) | - | 1982 | | | | Bai |
| 7 | Lekaroz | Helduendako (1) | 25 x 17 | 1962 | 5.000 | 3.500 | 1.250 | Bai |
| 8 | Lesaka | Helduendako (2) | 25 x 12,5 | 1994 | 3.300 | 1.650 | 1.100 | Bai |
| 8 | Lesaka | Haurrendako (1) | - | 1994 | | | | Bai |
| 9 | Sara | Helduendako (2) | 25 x 10 | 1978 | 80Lib.(*) | 50Lib.(*) | 25Lib.(*) | Bai |
| 9 | Sara | Haurrendako (1) | - | 1978 | | | | Bai |
| 10 | Sunbilla | Helduendako (1) | 25 x 12,5 | 1994 | 4.000 | 2.000 | 1.000 | Bai |
| 10 | Sunbilla | Haurrendako (1) | 8 x 5 | 1994 | | | | Bai |

OHARRA:
(*) Sarako Pistzinaren prezioak ez dira sasoi osorako abonamenduarenak, 10 tiket-enak baizik.

### ERREKAK · PUTZUAK

| | Herria | Erreka | Muestra hartu zeneko lekua | Kalifikazioa (*) |
|---|---|---|---|---|
| 1 | Elgorriaga | Ezkurra Erreka | Elgorriagako zubia | BAINURAKO EZ EGOKIA |
| 2 | Ituren | Ezkurra Erreka | Iturengo zubia | BAINURAKO EZ EGOKIA |
| 1 | Urrotz | - | Leurtzako Urtegia | BAINURAKO EZ EGOKIA |

Datu Iturria:
(*) Nafarroako Osasun Publikoaren Boletina.

**ttipi-ttapa**
HAMABOSTEKARIA

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 6.050 ALE

ARGITARATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE
HERRIKO ETXEKO PLAZA, 1
31780 BERA
TFNOA: 63 11 88
FAXA: 63 12 91

**uzendaria:** Joxemanuel Irioien. **Publizitatea:** Miren Karele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor rozena, Joxemanuel Irigoien. **dministrazioa:** Amaia Goia. **redakzio taldea:** Pello Apetxea, Juainas Paul, Kristina oan, Bittori Telletxea. **erriemaileak:** Joseba Azpiroz, steban Arozena, Juana Mari aizar, Ainhoa Mutuberria, Iban asi, Txema Aldabe, Pello xegia, Txema Urroz, Patxi xandorena, Daniel Martirena, abel Maia, Josune Etxebeste, ablo Mendiburu, Joseba arabide, Alizia Olaizola, Margari xenike, Koro Irazoki, Mixel erendiain, Jacqueline, Elixabet rria, Garbiñe Maiz, Oskar operena, Alberto Sansiñena, ello Apezetxea, Aitor Arozena, istina Boan. **Kolaboratzaileak:** HNE Nafarroa, Patxi Lasa, Mikel ezunartea, Joxe Javier Etxerria, Arantxa Zabala... **primategia:** Gertu (Oñati). *pi-ttapa*k ez du bere gain haren derrigorrez, aldizkarian adiezitako erranen eta eritzien eranukizunik. **akunde Laguntzaileak:** Bera, itza, Goizueta, Areso, Baztan, rdazubi, Zugarramurdi eta arako udalak, Bortzirietako uskara Mankomunitatea, alerrekako Zerbitzu Mankomuatea...

**Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du**



GAURKOTASUNEKO GAIA

# *Gobernuak, zonako zaborrak Sunbillan erretzea planteatzen du*

## Iruñean ez dute batere garbi azkenean zer eginen duten



J.I. MARIEZKURRENA
Sunbillako alkatea

Lehenbiziko zera erran nahi dut: Sunbillako udala periodikoen bitartez enteratu dela guzi honetaz. Bagenekien estudio bat egin behar zutela, bainan halere, Sunbillako herria ez zuten behin ere aipatu. Guzi honetaz, guri ez digu inork informaziorik eman, ez Nafarroako Gobernuak eta ezta Malerrekako Mankomunitateak ere.
Gauzak horrela, arras larria iduritzen zaigu asunto hau. Guzi honengatik, lehengo egunean Iruñean egon ginen, eta han ikusi genuenez, estudio bat bertzerik ez da oraindik. Gainera hagitz gaizki egina. Ematen du mapa bat hartu dutela, eta deus ezagutu gabe, begiratu dute erditsuan dagoen herria Sunbilla dela eta, tapa, hementxe jarri dute puntua. Dena den, estudio horretan alternatiba bezala dago zaborra Oronozera biltzea, han konpaktatu eta gero Arangurenera edo eramatea. Guretzat alternatiba hau da hoberena.
Nolanahi ere, bertze erremediorik ez balego, guk erabaki beharko genuke labea non jarri, inolako inposiziorik gabe.

## Labe hauetan zaborra ez da desegiten, aldatu baizik



Marisol TABERNA
Lainope Ingurugiro Tal.

Teorian hondakinak karbono-dioxidoa eta ura bihurtzen dira. Praktikan atomoak tximinitik ateratzean elkartu eta molekula berri eta arriskutsuetan osatzendira. Metalak ez dira erretzen eta tximinetik ateri eta zabaltzen dira hautsa bihurturik. Prozesu honetan, zaborra ez da desegiten, aldatu baizik. Labeanhondakina sartu eta hondakinak ateratzen dira, batzuk atmosferara, bertzeak uretara eta bertzeak lurrean hedatzen dira.
Gainera, jakin izan dugu hagitz zaila da sartzen diren hondakinen konposizio kimiko osoa ezagutzea, bertan batzuk hagitz arriskutsuak izan daitezkeelarik.
Europa eta EEBBetan 1950-60 urteetan hasi ziren horrelako praktiketan eta dituen ondorio txarrak ikusirik, gaur egun utzi egin dute eta bertze bideak urratzen ari dira. Estatu espainolean, aldiz, orain hasi nahi dute labeak eraikitzen.
Lurralde aurreratuetan aurkako presio soziala indartzen ari da, ez ote dugu guk ere berdin hasi beharko?

## Nik ulertu nuenez, hori lan hipotesi bezala hartu behar da



Patxi OIARTZABAL
Baztango alkatea

Duela zenbait aste Nafarroako Gobernukoek gonbidatu ninduten Hiri-Hondakinei buruz egin duten estudioaren aurkezpenera. Aurkezpen hori ordu erdi batez egin zen, eta nik ulertu nuenez, han aurkeztutakoa lan hipotesi bezala hartu behar da. Itxura denez, Nafarroako Gobernuak eta estudio horren egileak, aukera zehatz baten alde egiten dute apostua, eta aukera horretan Baztan, Malerreka eta Bortzirietako zaborrak Sunbillara biltzea pentsatzen dute, gero, bertan eginen zen labe-errausgailuan zabor hoiek erretzeko.
Zabor-errausgailua alternatiba egokitzat jotzen dudan? Ez dakit bada. Pentsatzen dut labe horrek hemen Baztanen edo Malerrekan dutenarekin ez duela deus ikustekorik izanen, planifikazio hobearekin eginen dela eta bere lanpostuak eta guzi izanen dituela. Dena den, badirudi Zabor Mankomunidadeak haunditu eta indartzeko joera dagoela Gobernutik, errentagarriagoak izateko.




**OKANE**
HARATEGIA
URDAITEGIA
Kanttonberri 4
Tfnoa: 63 00 18
BERA

## BOTA BERTSOA



### *Pistzina edo hondartza*

**Ekhine ETXEPETELEKU**
Bortzirietako Bertso Eskola
Doinua: Aita izena

*Pistzina baino hondartza dugu*
*neretzat askoz hobea*
*nahiz ta gorputzak bukatzen duen*
*beti hondarrez betea*
*bertan dabilen haize kirria*
*nola den paregabea*
*hango portua, itsasontziak*
*merezi duikustea*
*nere ustetan bikaina dugu*
*Euskadiko kostaldea.*

*Lagunartean gustora noa*
*hondartza baten erdira*
*igeri egin eguzkia hartu*
*beti jira eta bira*
*horregatikan bertan orduak*
*berehala joaten dira*
*itsasertzean eseri eta*
*gure begitan dizdira*
*oso gustora pasatzen dugu*
*hango surfistei begira.*

## IRAKURLEAK MINTZO

### Baztandarren Biltzarra

Biltzarra da guztiok daukagun indarra, itzaltzen utz ez dezakegun garra, guztiok baitugu bat bertzearen beharra.
Sinestarazi daukute batek bertzearen beharra daukanean, beharduna menpekotasunean dagoela, eta jarraian, inoren laguntzarik gabe behar hoiei aurre egiteko sekulako produktu eta asmakizun pila eskaintzen dakute, hori bai, diruaren truke. Saltzen diguten izkutuko mezu honetan bigarren atal bat falta da, hau da, bertzeak ere bataren beharra daukala. Benetako bizi kalitatea, kalitatezko giza harremanen baitan baitago.
Baztandarren Biltzarra, Lapurtarren Biltzarra, Basaburuako Eguna, Erronkariko Eguna eta abar luze bat aipa ditzaket aurrean errandakoaren adierazgarri.
Aipatu biltzar hok besta giroan pasatzeko eginak daude, baina ez da nahikoa ospakizunetan parte hartzearekin, bakoitzak bere ahalmenaren arabera antolaketa lanetan parte hartu beharko bailuke, baldin eta besta zentzu osoz hornitu nahi badugu.
Baztandarren Biltzarra Elkartean erosokeria baztertzearren eta elkarlanaren alde apostu egin nahi dugu, hau baite jarraitzeko bide bakarra.
Zuk, Elkarte-besta hau bizirik eta dinamiko ikusi nahi baduzu eta zure inguruko bizitza sozialaren partaide izan nahi baduzu, eskein ezazu zure laguntza. Lan egiteko modu aunitz baitago, aukera ezazu hobekien egokitu zaizuna.

ARIZKUNEN, 1995EKO UZTAILAK 5
MIKEL IRIARTE

**OHARRA:**
*Eritzi ezbedinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta ENAaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero,* **ttipi-ttapa***k bere esku izanen du horretarako eskubidea.*




**EZKALO**

Jose Antonio Elizondo • API 129

INFORMAZIOA:
✆ 451518 Doneztebe ✆ 23 48 30 Iruñea
Tfno. Mugikorra 908 - 77 76 96

***Larunbat eta igandetan zabalik ordua eskatuz gero***



**DONEZTEBEN ETXEBIZITZAK SALGAI**
**Bear-zana Pilotalekuaren ondoan:**
3 logela • egongela • 2 bainu (hidromasai bainera) • sukaldea • trasteroa
11.250.000 Pezetatatik hasita. + IVA
Hasierako sarrera 1.500.000 Pta.




LESAKA

## PRENTSATIK BILDUTAKOAK



Diario de Noticias 95-VI-25

*«Bapatean, aziendak menditik jeisten direla ikusten baduzu, eguraldi txarra datorrela esan nahi du. Edo ardiak geldi-geldi eta pilatuak daudenean, eguraldia aldatuko dela esan nahi du. Aziendak berriz mendi aldera doazenean, eguraldia berehala altxatuko denaren seinale».*

**Miguel Sukunza**
Leitzako Zorobarrengoa
Diario de Noticias 95-VI-25

*«Nekazal turismoa nekazaritzaren osagarria da, baina ez da hain errentagarria».*

**Juan Martin Aleman**
Nekazaria. Amaiur.
Ardatza 95-VI-23

*«Izen handia izan arren, balio duzula erakusten ez baduzu etxera joaten ahal zara».*

**Xabier Errandonea II**
Pilotaria. Bera.
Diario de Noticias 95-VI-28

## 11 GALDERA LABUR



**Jose Mari ETXEBERRIA**
Leitzako pelukeroa

- **Oporrak non eta norekin?**
- Neska lagunbatekin, edozein lekutan, oporrak izatea da kontua.
- **Bizitzeko, baserria, herri edo hiria?**
- Bizitzeko herria nahiago.
- **Gustuko duzun pelikula bat?**
- «El nombre de la rosa»..
- **Telebista ikusi edo irakurri?**
- Bietatik.
- **Zein kirol dituzu gustoko ikusteko eta praktikatzeko?**
- Ikusteko ziklismoa, eta praktikatzeko batez.
- **Emakume femeninak edo feministak?**
- Femeninak, femeninak.
- **Zer izanen zinateke pelukeroa ez bazina?**
- Bizitzailea.
- **Kirolean apusturik bai?**
- Batzuetan, bere neurrian ona da.
- **Bertsolari bat?**
- Egaña.
- **Zeri diozu beldur?**
- Oinazeari
- **Gustoko duzun janari bat?**
- Bakailoa.

ZALAIN
JATETXEA
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Zalain Auzoa
© 63 09 67
BERA
Boda eta banketeak ematen dira

SAROBE
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

EDARIAK
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

AYLA ARGAZKINTZA
• Estudioa
• Erreportaiak
• Ezkontzak
• Argazki materiala
• Fotokopiak
• Bideoa
• Markoak
Bixente Taberna
Legia karrika nº 4
BERA © 630597

Bera

# Udal karguen banaketa egin zen azken plenoan

## Euskara Mankomunidaderako ordezkaririk ez da oraindik izendatu

KRISTINA BOAN

Uztailaren 3an, ez ohiko batzarrean, hurrengo legealdirako eta bertze erakundeetako kargu eta ordezkariak izendatu ziren.

Udaletik kanpoko erakundeetan honako hauek izanen dira Berako udal ordezkariak:

• Zabor Mankomunitatea: Javier Iturria (Herrialde) eta Jose Mª Irazoki (EA).
• Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea: Manuel Iriarte (Herrialde) eta Gloria Agerri (EA).
• Osasun Kontseilua: Iriarte eta Agerri.
• Musika Eskola: Patronatoko lehendakaria Fermin Garcia (Herrialde) eta ordezkariak Iriarte eta Agerri.
• Ricardo Baroja eskola: Agustin Portu (EA).
• Toki Ona institutua: Altzuguren (Herriald.).
• Labiaga ikastola: Irazoki (EA).
• Bertizko Partzuergoa: Lasarte (Herrialde).
• Cederna-Garalur (Gloria Agerri.

Euskara Mankomunidaderako ez zen inor aurkeztu eta kargua ez da oraindik aukeratu.

Udal batzordeei dagokionez, HBk parte hartuko zuela erran zuen, baina ardurarik hartu gabe.



**Berako Udalbatzak hurrengo lau urtetarako lanak banatu ditu zinegotzien artean**

Artxiboa

### Gure Txokoa Urruñako Udaberri erakusketan

Gure Txokoa elkartea parte hartzen ari da ekainaren 23tik uztailaren 23ra Urruñan burutuko den Udaberri hirugarren erakusketaren antolaketan, Selarua tailerra eta Urruñako Herriko Etxearekin batera. Bertan mugaz bi aldetako hainbat margolari eta eskultoreen lanak aurkeztu dira.

Inaugurazio egunean banatu ziren sariak: Eskulturan Etxalarko Adrian Abadiek irabazi du eta margolarien artean, Valerio Lezeta donostiarra izan da onena.

### ttipi-flash

**Funberak** okupatutako lurrak aztertuko ditu Ingurugiro sailak, Nafarroa osoan hondakin arriskutsuen bidez kontaminatutako lurrei buruz eginen den azterketaren barnean. 1,4 milioi erabiliko dira horretarako.

**Toki-Ona** institututik selektibitatea egitera joan ziren 34 ikasleetatik 33k aprobatu dute, zentrutik adierazi dutenez.

**Gure Txokoatik Errealara** Gure Txokoako infantil taldean ari ziren hiru mutikok datorren denboraldian Errealan jokatzeko kontratua sinatu dute. Mikel Altzuri, Unai Otazo (Etxalar) eta Unai Zelaieta Donostia aldera joanen dira, bi lehenak kadetetan jokatuko dutelarik.

**Jose Luis Telletxea** ekainaren 4an atxilotu zuten Portugalen eta biharamonean libre utzi zuten.




© 631076 • BERA

BOTXO
ostatua
Tfnoa: 63 00 52
Zalain Auzoa, BERA


ANSONEA
JATETXEA
Kontsultatu menu bereziak
Foruen Plaza 1, Tfnoa: 630072 • BERA

GRUPO ZURICH
ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — © 63 07 63

Lesaka

# PNV eta EA artean banatu dituzte Herriko Etxeko ardura guztiak

## Alkatearen erranetan, HBk pintadak eta istiluak salatzen ez dituen bitartean ez du lekurik izanen udal karguetan

AITOR AROZENA

Herriko Etxeko batzorde ezberdinetako ardurak eta Bortziriletako mankomunitateetako ordezkariak PNV eta EA artean banatuko dira, legealdi honetako lehen plenoan erabaki zenez. Erabakia, PNVren aldeko botuarekin, EAren abstentzioarekin eta HBko kontrako botuarekin hartu zen. Alkateak erran zuenez, "*HBk herrian izaten diren pintadak eta istiluak salatzen ez dituen bitartean ez zaio udal ardurarik emanen*". HBko ordezkariek berriz, erabakia "*kazikada antidemokratikoa*" dela erran zuten. "*HBk sinatutako pintada eta idatziak bakarrik, eta ez anonimoak*" bere gain hartzen dituztela gaineratuz.

v Imanol Borda 'Txapas' lesakarra, Donezteben atxilotu ondoren kartzeleratua izan da. Mobilizazioak burutu dira herrian.



### Sanferminei adio

Datozen sanferminetarako guttiago gelditzen da eta horrekin kontsolatu beharko dugu oraingoz, aurtengo bestak akautu baitira.

Ortzeguneko altxaferotik asteleheneko ezkonduen eguna bitarte umorea eta giro bikaina nagusitu dira. Aurten gainera, egitarau ofizialaz gain, txoznen inguruan eta ostatuetan antolatutako ekitaldi ezberdinetaz goxatu ahal izan dugu.

### Katazpegiko zabortegia eta Eskolamendiko meategiaren sarrerako lurrak aztergai

Katazpegiko zabortegiko lurrak eta Eskolamendiko mina edo meategi zaharreko sarrerak aztertuko ditu Ingurugiro sailak, Nafarroa osoan hondakin arriskutsuen bidez kontaminatutako lurrei buruz eginen duen ikerketaren barnean. Azterketa hau egin ondotik, zonalde horiek errekuperatzeko proiektu bat eginen omen da. Zehazki, Eskolamendiko meategiko sarrerak aztertzeko 19,9 milioi pezetako aurrekontua dago. Katazpegiko zabortegiko lurrak begiratzea berriz, 13,6 milioi pezeta kostako da.

### Herriko Etxearen salaketa

Uztailaren 2ko gauean, Herriko Etxeko arkupetan su eman zioten ezezagun batzuk zabor kontenedore bati eta honen ondorioz, udalak salaketat aurkeztuko du epaitegietan, "*Herriko Etxea erretzeko egindako saioagatik*".

Gertakariak goizaldeko 2etan izan ziren. Juan Fermin Mitxelena zinegotziak komunikabideei adierazi zienez, "*talde hauei, inora ez garamatzan ekintza hauek gehiago ez errepikatzea eskatuko nieke*". Kalteak zenbatu gabe badaude ere, Mitxelenaren erranetan haundiak izan daitezke. "*Ez da aunitz erre, sarrerako atea lodia baita, bainan sabaiako egurrak garbitu beharko dira, plastikoa erretzearen ondorioz beltzatuak gelditu baitira*".


LEGARRA — Legarrea, 9 • © 63 70 30 • LESAKA

ESKAINTZAK — Uztailaren 31 bitarte baliagarriak dira

| | | |
|---|---|---|
| • Barrako pegamentua | ~~447 Pta.~~ | 365 Pta. |
| • Pritt pegamentua' | ~~165 Pta.~~ | 135 Pta. |
| • Staedlererrotuladorea | ~~260 Pta.~~ | 205 Pta. |
| • Lapiz estutxea | ~~335 Pta.~~ | 288 Pta. |
| • Portaminak | ~~188 Pta.~~ | 155 Pta. |
| • 'Petrus' taladroa | ~~1.345 Pta.~~ | 1.180 Pta. |
| • 'Petrus' grapadora | ~~2.395 Pta.~~ | 2.028 Pta. |
| • 'Super block' koadernoa | ~~985 Pta.~~ | 765 Pta. |
| • Likido zuzentzailea | ~~195 Pta.~~ | 135 Pta. |
| • 'Noris' lapitzak | ~~69 Pta.~~ | 51 Pta. |
| • 'Loctite' pegamentoa (5 gr.) | ~~655 Pta.~~ | 593 Pta. |
| • Karten baraja | ~~282 Pta.~~ | 242 Pta. |

LORA DENDA TXIRULA Bitiria LESAKA
☎ 627542
bitxikeriak • opariak • eskulangintza

IRU BIDE ERRETEGIA
Tfnoa: 637127
LESAKA

BEREAU
Ostatetxea • Hotel
Lesakako Bidegurutzean
Tfnoa: 63 73 82 - LESAKA




Etxalar

# Haurrek eta adinekoek eskurtsio bana egin dute egunotan

## Landagain eskolak eta Larraburuak antolatuak







Haurren Eguneko irudiak: Landagain eskolan egindako eskulanak eta ipuinak ikusi ahal izan genituen. Haurrak eta helduak pailazoekin eta bertako trikitilariak giroa alaitzen

Argazkiak: PELLO

PELLO ETA ALBERTO

Eriaroaren 22an joan ziren haurrak. Pasaian itsasoan itzulia eman, kaia ikusi eta Donostira jo zuten. Urgull mendira igo ziren eta hiriaren ikuspegiaz gozatu. Arratsaldez Groseko hondartza berria izan zuten jostaleku. Larraburua elkartekoak berriz, Iparraldean ibili ziren lehenbizi, baina bazkaldu Baztanen egin zuten.

### Altxatari dirulaguntza

Udalak 133.560 pezeta eman ditio Altxata kultur elkarteari iazko zuloa estaltzeko. Bertzalde, 200.000 pezeta gehiago ematea onetsi du, eriaroko Kultur Egunetan egin diren gastuetarako.

### Saihesbidearen proiektua

Antonio Suescun Martinezek idatziko du Etxalarko saihesbide edo bariantearen proiektua, Jose Ignacio Lopez Borderias Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabideetarako kontseilariak onartu duenez.

Lanak 868.600 pezetaren truke eginen ditu eta bi hilabete t'erdiko epea izanen du, legalki hasten direnetik, lanok akautzeko.

❖ **Landagain** eskolako jostaleku itxia moldatzea ia milioi térdi pezeta kostako da. Nafarroako Gobernuari dagokion laguntza emaiteko eskatu dio udalak.

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14
Beheko Plaza 8, LESAKA

CAPDEQUI
MICRO BUS
CAP
24 ORDUKO BUS ZERBITZUA
• 17 jarlekuko mikrobusa
• 55 jarlekuko autobusa
• Afari, despedida, sagardotegietara joateko
☎ (943) 300139 • 908.671469 • ANDOAIN

BEKO ERROTA
Lore eta landareak
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA



© 635290
ETXALAR

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
Lagun artean goxo-goxo egoteko leku egokia

koxkonta



Ezkontza, bataio eta bileretarako leku egokia
Deitu erreserbak egiteko
Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • LESAKA

Igantzi

# Lehen pausoak ematen ari da jubilatuen elkartea

## Zinegotzi berriak ere lanean hasiak dira

OSKAR TXOPERENA

Hasiera itxaropentsua izan du Igantziko jubilatuen elkarteak. Deitutako lehendabiziko bilerara 50 lagun inguru bildu ziren eta arazorik gabe aukeratu zituzten juntako sei partaideak. Juanita Urtxegi, Carmen Ordoki, Frantxixka Etxeberria, Jose Arburua, Jose Mª Begino eta Juan Antonio Urtxegi dira lehendabiziko juntako osatzen dutenak. Ez zen botaziorik behar izan euren buruak eskaini baizituzten lan hori betetzeko. Bazkide bakoitzak urtero 2.000 pezeta ordaindu beharko dituela erabazi zuten.

Herrikoetxearen eskutik hartutako egoitza erogarria iduritu bazitzaien ere, beren kezka agertu zuten sukalde ttiki baten faltarengatik. Geroztik, udal ordezkariekin izandako bileran, irailetik aitzinera pistzinaren ostatuko sukaldea erabiltzeko baimena lortu zuten. Erabileraren maiztasunaren arabera, erabakiko dute goian sukaldea egin ala ez. Dagoeneko 80tik goiti omen dira bazkideak.



**Aurpegi gehienak berriak ditugu Herriko Etxean, bi bakarrik baitira errepikatzen duten zinegotziak**

### Udal berria

Udalak ere egin ditu lehendabiziko plenoak eta hurrengo lau urtetan bakoitzak egin beharreko lanei ekin zioten lehendabizi. Luzeegi izanen litzateke komisio guztietako partaideak aipatzea. Hortaz, bada, komisio buruen izenak emanen ditugu laur-labur.

Hirigintza eta haziendak zinegotzi guziak daude sartuak; sanitate eta ingurugiroa: Ramon Retegi; mendiak: Bidal Etxarte; Hezkuntza, kultura eta kirolak: Jose Ramon Etxeberria. Azkenik, alkateak bera ordezkatuko duten bi alkate-ordeak izendatu zituen: Ramon Retegi eta Jose Javier Urtxegi.

❖ **Herriko Etxeko** Bulegoak ordutegi berria izanen du udako arratsaldetan: 5,30etatik 7,30etara irekiko dira.


ANTZUZELAI S.L. 1.
Irungo errepidea - BERA - Tel. 948-631317
HARRI NATURALA
ATERATZEA eta LANTZEA
Antzinaldeak, Angeluak, Orma antzinak, Leihoak, Ateak, Arkuak, Pilareak
Tximiniak, Erlaizak, Moldurak, Zokaloak, Hilarriak, Marrazkiak
'Abujardadoa' Zahar antzekoa
Mazizoa Txapeatua
ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK

J. RAMOS
Zolak akutxilatu eta barnizatzen dittut
✆ 631342 BERA • ✆ 637172 LESAKA

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

ESTHER ATEAK, C.B.
Zarandia 9,
☎ 627584 - LESAKA
☎ (943) 610319 - IRUN
- Parket flotantea
- Tarima
- Kortxoa
- Ate korrederoak dituzten armarioak
- Paretan sartzeko armarioak

GOZOTEGI - JAIONE
Itzea 3 • 630786 • BERA

ARMUA
Jatetxea
Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 91 31 - URDAZUBI

Arantza

# Herriko pilota txapelketak lehenbiziko pausuak eman ditu

Momentuz hogeitalau pilotarik izena eman badute ere, afizionatu mailan apuntatzeko epea ez da oraindik bukatu

GARBIÑE ETA ELIXABET



Herriko txapelketako finalak bestetan jokatuko dira



Ekainaren 23an San Juan sua ospatu zen Osiña auzoan. Ez zen salto eta dantzarik faltatu

Herriko pilota txapelketako kanporaketa partiduakjokatzen hasiak dira dagoeneko eta, urtero bezala, finala bestetan jokatuko da.

Momentuz, hogeitalau lagunek eman dute izena, bainan helduen mailan ez da oraindik epea bukatu. Lau mailatan banatu dira partehartzaileak: benjamin mailan sei bikotek parte hartuko dute, infantiletan bi bikotek eta jubeniletan lau bikotek. Afizionatu mailan, parte hartu nahi duenak Javier Mari edo Juanjori erran behar dio.

## Saneamendua

Ur sarea berritzeko egin behar diren lanetako enpresa adjudikaturik dago. Zazpi enpresa presentatu ziren udalak luzatutako lehiaketara eta azkenean Leitzako 'Azpiroz eta Saralegi'k burutuko ditu, berea izan baitzen eskaintzarik onena, udalaren ustez. Laister hasiko dira lanak.

## Euskara ikasten Aterpen

Hogeitamar lagun etorri dira hilabete baterako euskara ikastera eta lantzera Aterpe albergera. Eskolako bi gelatan ikasten dute goiz eta arratsaldez eta erran digutenez, hagitz gustura daude herriko giroan.





ALBERGEA JATETXEA

✆ 634179
ARANTZA

TECNIPE

Tfnoa: (943) 399946 • Faxa: (943) 390748
Euskadi Etorb. 57 • PASAI SAN PEDRO
Tfnoa: (948) 634161
Salbatore karrika, z/g • ARANTZA

- Etxe aitzinaldeko harri eta adreiluen tratamendua.
- Garbiketa osoa eta ura sartzearen kontrako tratamendua
- Etxe aintzinalde eta barnekaldeen margotzea

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 • BERA

KIROMASAIA
Iñaki Razquin

KIROL MASAIA
- Besoa - Belauna
- Ukalondoa - Zurmioa

GIHAR LASAITZEA

BIZI MASAIA
- Zerbikalak - Kaderak
- Lunbarrak - Ziatika eta sasi-ziatika

ERLAJAZIO MASAIA
Gihar kontrakzioak, lanean postura txarrean egoteagatik...

TERAPEUTA DIPLOMATUA
Kontsulta leku zentrikoan
(Urdanibia Plaza ondoan)

Larretxipi 17 Behea – IRUN Tel: 943-63 34 81
Ordutegia: Astelehenetik ortziralera 16.00tik 20.00ra
Larunbatetan 10.00tik 14.00ra
R.P.S.: 199/94

Sunbilla

# Igeriketa ikastaroan larogei lagunek eman dute izena

## Uztaila eta abuztuan barrena emanen diren klaseen arduraduna Edurne Billabona bilbotarra izanen da



Udal berria, Pilar Korta (HB) falta da bakarrik



Edurne Billabona, igeriketa ikastaroko irakaslea

IXABEL ETA JOSUNE

Uztailatik abuztura arte emanen dira igeriketa ikastaroak. 80 pertsonek eman dute izena eta 15 laguneko taldetan banaturik jasotzen dituzte klaseak, goizeko 8etatik 11ak arte. Talde bakoitzak ordu beteko ikastaroa du. Adin guztietakoak eta igerian maila ezberdina dutenak daudela kontuan hartuz egin dira taldeak. Irakaslea Edurne Billabona da, berez bilbotarra bainan, nonbait, herri honetako arrazatik datorrena.

### Saneamendua

Orain aste batzuk hasi dira saneamendu lanak. Oringolbaita eta Gillenbaita baserrietan barna egiten ari dira, herriko bestak pasatu arte ezbaitira hasiko Karrika Nagusian lan hauek. Sunbillako Gazmendi eraiketa enpresak eginen ditu.

### Udal berria

Udal kargu eta Batzordeen banaketa egin da dagoeneko:

- Hirigintza eta ingurugiroa: Faustino Mariezkurrena (HB) eta Jose M. Agirre (EA).
- Kultura eta kirola: F. Mariezkurrena eta Pilar Korta (HB).
- Osasuna eta Malerrekako Mankomunitaterako: Pako Petrirena eta Jose Luis Iriarte (EA).
- Abelzantza eta mendiak: Jose I. Mariezkurrena eta Jose Migel Zelaieta (EA).
- Turismoa: Petrirena eta Iriarte (EA).
- Hezkuntza: Petrirena (EA).
- Administrazio lokala eta finantzak: Agirre eta Iriarte (EA).

Udal idazkaritzan, bertzalde, hilabete batez Mª Jose Larraioz izanen da.



AMEZTIA
Jatetxea - Hostala
Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan
Tfnoa: 450028 • DONEZTEBE

IBARROLA
HAURRENDAKO ARROPA • MERTZERIA
Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 • DONEZTEBE



Moble berriak erakusketan
TELLETXEA MOBLEAK
Moble modelo berriak
Burdin eta zura konbinazioak
Rosa Seminario z/g • ✆ 45 02 58 • DONEZTEBE

Doneztebe

# Besta xarmanta Arkupeak elkarteak antolatutakoa

## Ekainaren 30ean, 800 bat lagun bildu ziren Bordatxo dantzalekuko bazkarian

TXEMA ETA KARMELO

Ekainaren 30a egun ederra izan zen Arkupeak elkarteak antolatutako ekitaldietan egon zirenendako. Goizean Doneztebeko frontoian meza ospatu zen eta 85 urte bete dituztenei eta 50 urte ezkondurik daramazkitenei omenaldi hunkigarria eskaini zitzaien. Bertsolariak, Amaia Zubiria eta plakak banatzen herriko alkatea eta Ricardo de Leon izan ziren. Bordatxoko bazkarira berriz, Juan Cruz Alli, Otano, Nafarroako Gobernuko lehendakari berria eta Lola Eguren, parlamentuko lehendakaria bisitari izan ziren. Hauetaz gain, inguruko herrietako hainbat alkate eta agintari agertu ziren. Denetara ia 800 pertsona bildu ziren bazkaltzera, bero haundia egin zuen egun horretan eta akitzeko, bertan dantzaldia.



800 lagun bildu ziren bazkarian ZALDUA

### Auto-crossa lehen aldiz burutu da

Aurtengo bestetan izandako istiluaz gain, ekitaldi berri bat ospatu zen, autocrossa, hain zuzen. Horretarako antolatzaileek kotxe zaharrak erosi edo moldatu eta itzuli baten barnean zenbait oztopo gainditu behar zituzten. Arrakasta haundia izan zuen proba honek ikusleen aldetik eta 18 partehartzaile izan ziren. Irabazlea, Shanti San Miguel izan zen, bigarrena Rafa Zabala, hirugarrena Pepe Reguera eta laugarrena Angel Oiartzabal. Ederki pasatu zuten.

### Istilu larriak bestetan guardiazibil eta gazteen artean

Bestetako igande goizaldean guardiazibil eta gazteen artean gertatutako istiluen ondorioz zortzi zauritu eta sei atxilotu izan ziren. Hauetatik hiru, eratsundar bat, elizondoar bat eta lesakar bat espetxeratu zituzten epailearen aitzinetik pasa ondoren. Elizondoko gazteak, Txema Ballarenak, tratu txarrak jaso izana salatu zuen.

Gertakari larri hauen ondorioz, Doneztebeko udalak pleno berezia deitu zuen, manifestaldiak, ekintza bandalikoak eta seguritate indarren jokaera aztertzeko.

Honela, udalaren ustez, *"ez da egokia manifestaldiak antolatzea herriko bestetan, eta are gutxiago herriko bestetako asteburuaren barrenean, bertako giroa berez berezia izaten delako"*.

Gertatutako ekintza bandaliko guzien kontra agertu ondoren, seguritate agenteen jokabidea ez zela egokia erabaki zuen udalak ahobatez, *"segurtasun agente izateak duen izenari erantzun egokia ematera bortxatzen duelako, benetako profesionalak izanez eta beraien betebeharra ongi betez, dituzten mugak zainduz eta probokatzaileen mailan sekulan jarri gabe"*. Azkenik, hiritargoaren kontzientziari eta segurtasun indarren profesionaltasunari dei egin dio udalak.

FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBEn
MALDAERREKA, S.L.
24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

SANTAMARIA
Jatetxea
Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

BELARRA Kafetegia
Plater Konbinatuak
Ameztia 3, Tf. 45 03 06 • DONEZTEBE

# ITURENGO BESTAK

*Uztailaren 14tik 18ra*





**Ortzirala 14**
9etan **txupinazoa. Gero, kalejira trikitilari eta txistulariekin. 12etatik 4ak arte**, dantzaldia GAUBELA taldearekin.

**Larunbata 15**
**10etan** kalejira trikitilari eta txistulariekin. **11etan** plater tiraketa herritarrentzat. **12etan** pilota partidoa: Saldias eta Andiarena, Baleztena eta Zozaiaren kontra. **1etan**, omenaldia herriko kirolariei: Leitza, Apeztegia, Saldias, Ariztegi eta Mikelarena. **6etan** futbito partidoa. Arratsalde eta gauez dantzaldia GAUBELA taldearekin.

**Igandea 16**
**10etan** kalejira trikitilari eta txistulariekin. **12etan** meza nagusia. **6etan** pilota partidua: Leitza eta Apeztegia, Urrutia eta Otxotekoren kontra. Arratsalde eta gauez dantzaldia GAUBELA taldearekin.

**Astelehena 17**
**10etan** kalejira trikitilati eta txistulariekin. **11etan** mus txapelketa. 5etan, haur jokoak. Eguneroko orduetan dantzaldia MAIXA eta ITZIARekin.

**Asteartea 18**
**10etan** kalejira trikitilati eta txistulariekin. **2,30etan** herri bazkaria. Dantzaldiak JOSE ANGEL eta KRISTIANekin betiko orduetan eta besten bukaera.

**Ohiko soinulari eta txistulariak eta hankapalo modernoak, denek dute lekua bestetan**



ONGI PASATU HERRIKO BESTAK


**TABERNA ETXEA**
**Besta zoriontsuak opa dizkie Iturendarrei**
Merkatarien karrika 12, ☎ 450007 - DONEZTEBE

**MENDAUR OSTATUA**
*Besta ederrak pasa!*
✆ 45 05 73 ITUREN

**ITURENGO ZURGINDEGIA**
*Besta onak pasa!*
✆ 450327 • ITUREN

ITURENGO UDALA
(NAFARROA)
*Iturengo Udalak*
*Besta zoriontsuak opa dizkizue*
*Iturendar eta bisitari guztioi*

**ETXANDI TXOKO erretegia**
**Bazkari, afari eta gosariak**
**ITUREN**
**Tfnoa: 45 04 91**

*Uztailaren 22tik 26ra*

**Larunbata 22**
**5etan** ahate askatzea. **8etan** suziria eta ezkil jotzea bestei hasiera emateko. Herriko jatetxeetan Malerrekako zopak. **12etan** HARITZA.

**Igandea 23**
**9etan** kalejira. **11etan** balkoi lore lehiaketa. **12etan** crossa. **5etan** mus txapelketa. Arratsalde eta gauez JOSE ANGEL.

**Astelehena 24**
**9etan** kalejira. **10etan** plater tiraketa. **5etan** haurren jokoak. **12,30etatik goizaldera** dantzaldia BASAJAUN taldearekin. Goizaldeko **2etan** Niko Etxart-en kantaldia.

**Asteartea 25**
**9etan** kalejira. **11etan** meza nagusia. **12etan** Iturengo trikitilariak. **12,30etan** futbol txapelketa. **7etan** Nagore anaiak. Dantzaldia JOSE ANGELekin.

**Asteazkena 26**
**9etan** kalejira. **12etan** toka txapelketa. **2etan** zikiro-jatea. Arratsalde eta gauez JOSE ANGEL.





**Donezteben ospatu zen laxoa txapelketako finala, Doneztebeko bi taldeak izan baitziren finalista. Hirugarren postua Oitzek eskuratu zuen** ZALDUA

## Udako pelikula emanaldiak

Uztailaren 13an, ortzeguna, Ezkurran 'Azken mohikanoa'. 14an, ortzirala, Legasan 'Jeremiah Johnson'. 17an, astelehena, Donamarian, 'Lurraren erdirainoko bidaia'. 18an, Saldiasen 'Blodd kapitaina'. 19an, Eratsunen, 'Munchausen baroiaren abenturak'. 20an, Donezteben, 'Goldi, azken urrezko hartza'. 21ean, Beintza-Labaienen, 'Sandokan'. 26an, Narbarten, 'Orka'. 27an, Sunbillan, 'Goonietarrak'. 28an, Urrotzen, 'Arka galduaren bila'. 31n, Zubietan 'Urrezko zazpi banpiroen kondaira'.

Langarra elkarteak, Mankomunidadea eta Gobernuaren laguntzazantolatutako emanaldi guztiok gaueko 10,30etan izanen dira.

ONGI PASATU HERRIKO BESTAK

**Hilarion Jatetxea**
Arrain, marisko eta bertako produktuetan espezializatuak
✆ 45 00 03 • ELGORRIAGA

**TABERNA ETXEA**
**Besta zoriontsuak opa dizkie Elgorriagarrei**
Merkatarien karrika 12, ☎ 450007 - DONEZTEBE

*Burdinlan artistikoa*
...
MARTIN - IBARRA
...
Tfnoa: 45 02 35
ELGORRIAGA

**ETXEBERRIA ZURGINDEGIA**
Klase guztietako lanak egiten ditugu
✆ 45 03 10 • ELGORRIAGA

**MAITXENEA FONDA**
*Eguneko menua eta bokadilloak*
✆ 45 01 29
San Pedro 28
ELGORRIAGA

Goizueta

# Txapelak barra-barra

Apezetxea, Salaberria eta Olaizola anaiek garrantzi haundiko txapelketak irabazi dituzte







Olaizola anaiak, Asier eta Aimar, Joxe Julian Salaberria eta Juantxo Apezetxeak, momentu ederrak eskaini dizkiote herriko pilotazaleei

ESTEBAN AROZENA

Uztailaren 2a egun oparoa izan zen goizuetar pilotazaleentzat eta batez ere, herriko hiru pilotarirentzat. Eguerdian, Joxe Julian Salaberriak profesional mailako bere lehen txapel ofiziala eskuratu zuen. Arratsaldean berriz, Asier eta Aimar Olaizolak hartu zioten txanda, beraiek egin baitziren Elgetako torneoan jokoan zeuden bi txapelen jabe. Aipatu beharrekoa da, astebete lehenago Juantxo Apezetxeak Sestaon lortutako 'Federazioen kopa'. Halere, denak ez dira berri onak pilota munduan, Goizuetako taldea Altsasuk kanporatu baitzuen herriarteko txapelketatik.

## Bide berritzea

Lehiaketa publikora atera berria du Nafarroako Gobernuak herritik Arranbide bitarteko errepide tramoaren konponketa. Zolaberritzeaz gain, kunetak ere ormigoiztatuko dira, 135 milioieko aurrekontua duen obra honetan. Uztailaren 31n, irekiko dira pliegoak eta hortik aurrera sei hilabeteko epea emango zaio konstruktoreari lanak bukatzeko.

Areso

# Kultur Eguna ospatu zen uztailaren 2an

Egun osoan barrena hainbat ekitaldi burutu ziren

JUANA Mª SAIZAR

Meza eta hamaiketakoaren ondotik, herriko umeak eta larrietan Leitzatik etorritako bi bikotek pilotan jokatu zuten. Gero, haurrentzat jokoak eta bizikletekin akrobaziak egiten zuen talde bat ikusteko aukera izan zen. Herriko haurrak ikusteaz gain parte hartu ahal izan zuten, beraien dantza ederrak erakutsiz. Herrian bertan dauden sokatira taldeak beraien indarrak erakusteko gogoz atera ziren, kadeteak Ultzamaren kontra eta larriak Larraunen kontra. Gisa honetako festa batean falta ezin dena bazkaria da eta horrenbestez, ehun bat lagun bildu baitziren giro onean, herri bazkarian. Trikitixa ere ez zen falta izan. Egunari bukaera emateko, antzeslan bat eskeini zuten haurrek, bide batez, hamar urte hauetan irakasle bezala egon den Mertxe Amondaraini agur beroa emanez.

Udal berriari dagokionez, Martin Caballero izango da alkate berria eta Milagros Oreja alkateordea. Batzordeetako karguak ere banatu ziren.



Leitza

# 'Plazaola'ko azal lehiaketarako lanak aurkezten ahal dira

## Larunbat honetan, uztailak 15, bukatuko da kartelak Aurrera elkartera eramateko epea

JOSEBA AZPIROZ

San Tiburtzio festak iragarriko dituen 'Plazaola' aldizkarirako lanak Aurrera elkartean aurkezteko epea larunbat honetan, uztailak 15, bukatuko da. Leitzarrei zuzendutako lehiaketa honetako irabazleak 20.000 pezeta jasoko ditu festetan. Igandean, Aurrera elkartean eginen den erakusketara agertzen direnak aukeratuko dute aurtengo irabazleak. Xehetasun gehiagoren berri jakiteko galdetu Javi Aranburu eta Karmele Agirreri.





Tresna zaharren erakusketak izugarrizko ikusmina sortu du leitzarren artean
Joseba

### Legealdirako udal karguak banatu dira

Legealdi honetako lehen plenoa burutu zen eta honenbestez, udalarekin zuen arazoak nola bideratu jakiteko, hona hemen udalak sortutako batzordeak eta nor izango diren buru:

Mendiak, Gerardo Caballero; Osasuna, Ongizate eta Gizarte zerbitzua, Igokunde Aleman; Hazienda, Antton Erkizia; Euskera, Mikel Ilarregi; Giza mugimenduak, Antton Erkizia; Festak eta kirolak, Gabriel Saralegi; Hezkuntza, Luziano Olano; Ingurugiroa, Miguel Mari Zabaleta; Turismoa, Gabriel Saralegi; Kultura, Mertxe Saizar; Herri-lanak, Bixente Usabiaga; Hirigintza, Silvestre Zubitur; Langilegoa, Silvestre Zubitur; Herri hondakinak, Silvestre Zubitur; Musika eskola, Silvestre Zubitur eta koordinazioa eta informazioa, hiru zerrendaburuak, hau da, Mikel Ilarregi, Gabriel Saralegi eta Silvestre Zubitur.

*ttipi-flash*

**Okile ezinduen tailerra**

furgoneta bat erosi nahian dabila. Ibilgailu horrekin, hainbat ekitaldietara joateaz gain, bere kaxa etxera joateko zailtasunak dituzten pertsonak bertara eramateko erabiliko litzateke. Horretarako, zenbait ekitaldi burutuko dituzte furgoneta ordaindu ahal izateko –3 milioi balio du–. Alde batetik mendi bizikleta bat zozketatuz boletoen salmenta, 200 pezetatan; Karrapeko taberna zabaltzea pestetan eta azkenik, kontu zenbaki bat zabaldu dute CANen. Norbaitek diru sarrera egin nahi izanez gero bertan galde dezala.

Servicios Contables Leizaran, S.L.
AHOLKULARITZA KONTABLEA
• Enpresa berri ezberdinen sortzea.
• Kontabilitateak • IVA eta IRPF
Amazabal 31, Solairuarte • Tfnoa eta Faxa: 610648 • LEITZA

BLANCO ANAIAK, S.L.
MARMOL eta GRANITOAK
*Sukalde entzimerak • Bainua • Hilerria*
BERA - Kanttonberri 4, ☎ 631052
IRUN-(943) 631084 • LEZO(943) 529390

LANCHAS
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Estaldura orokorrak
Bera ✆ 630735 • IRUN ✆ (943) 622305



ttipi-ttapa
*6.000 harpidedun 20.000 irakurle*
*ttipi-ttapa*rekin zure publizitatea zonako sukalde-zoko guzitan izanen duzu

Baztan

# Udal karguen banaketa egin zen ereiaroaren 27ko batzarrean

## Bertzalde, Oronoz-Mugairiko argazki rallyan Fidel Ordoki lesakarra suertatu zen irabazle

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 27an egindako batzarrean banatu ziren hurrengo lau urteetarako lanak eta batzorde buruak:

- Ekonomia eta Hazienda, Miguel Angel Adin (EA).
- Lurralde antolaketa, herrilan, etxebizitza eta urbanismoa, Remigio Lizasoain (EA).
- Nekazaritza, abelzantza eta mendiak, Marcos Irigoien (EA).
- Kirola, aisialdia eta gazteria, Rafael Olaizola (EA).
- Kultura, hezkuntza eta euskara, Juana Mari Barberena (EA).
- Industria, komertzio eta turismoa, Pedro Zapata (UPN).
- Komunikabide eta garraioak, Begoña Sanzberro (UPN).
- Ongizate soziala, Sanitatea eta Hirugarren adina, Felix Gonzalez (UPN).
- Ekologia, ingurugiroa eta zaborrak, Manuel Pedrosa (UPN).

Udal karguekin batera, bertze erakundeetan udalak izanen dituen ordezkariak ere erabaki ziren pleno berean:

- Bertizko Partzuergoa, alkatea eta Olaizola.



Baztango udala hurrengo lau urtetarako osatu da

- Cederna-Garalur, Oiartzabal.
- Zahar eta jubilatuen erresidentzia, Oiartzabal, Adin eta Gonzalez.
- Elizondoko Osasun zentroa, Gobernu Batzordeko kideak.
- Baztan ikastola, Barberena.
- Ikastetxeak, Begoña Sanzberro (UPN).
- Ikasketa ertainetako zentruak, Pedrosa.
- Lanbide Heziketa institutua, Adin.
- Ehizi eta arrantza elkartea, Oiartzabal.
- Quinto Real-eko Mankomunidadea, Oiartzabal eta Adin.
- Erregerenako mankomunidadea, Oiartzabal eta Irigoien.

Gobernu Batzordea talde guzietako ordezkariez osatzea nahi zuen alkateak, bainan Sotero Etxandi (HB) eta Juanito Meokik (AB) uko egin diote bertan parte hartzeari, beraz, hurrengo batzarrerako ordezko bi zinegotzi izendatu beharko dira.

## Oronoz-Mugairiko I. Argazki Rallyko sariak banatu dira

Josu INZIARTE

Fidel Ordoki lesakarra, Oronoz-Mugairiko Gaztelune elkarteak antolatutako I. Argazki-rallyaren irabazlea izan zen. Horrela argitu zuen pasa den ekainaren 24an, elkartearen egoitzan egindako sari banaketan.

Ordokik, lehenbiziko eta bigarren saria sailkapen nagusian eskuratu zuen eta baita ere akzesit bat. Hamabortz argazkizale aurkeztu ziren, joan den maiatzaren 21ean Oronoz-Mugairin burututako rallyan, gehienak Baztan-Malerrekakoak. Sei gai prestatu zuten antolatzaileek partehartzaileek lan zitzaten eta hauexek ziren irabazleak. Bertako baserri tipiko bat, Cristina Zalba (Doneztebe); Oronoz-Mugairiko paisai edo txoko bat, Luis Manuel Arregi (Oronoz) eta akzesita Fidel Ordoki; ingurugiro-natura, Gregorio Iribarren (Arizkun); naturari erasoak, Cristina Zalba. Emakume langileak, Blanca Bertiz (Narbarte); gai librean, Simon Arrigain (Hondarribia).

Sari hauetaz gain, lehenengo eta bigarren sariak sailkapen nagusian aipatu bezala, Fidel Ordokik lortu zituen, honela 30.000 pezeta irabaziz.

Aurtengoa da Gaztelune elkarteak antolatu duen I. Argazki rallya eta antolatzaileen ustez, emaitza hagitz ona izan da, bai partehartzaileen aldetik, bai ikusitako argazkien mailaren aldetik, baita antolaketaren aldetik ere. Beraz, datorren urtean 2. edizioa eginen dute.

ONGI PASATU HERRIKO BESTAK

TABERNA ETXEA
Besta zoriontsuak opa dizkie Elizondoarrei
Merkatarien karrika 12, ☎ 450007 - DONEZTEBE

GAS ASKAITZ fontanería calefacción
Empresa colaboradora de REPSOL BUTANO
Era guzietako instalazioak: Etxekoak, industrialak...
Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

# Baztandarren Biltzarra asteburu honetan ospatuko da

## Antolaketan parte hartzeko deia luzatu du elkarteak

A.A.

Igandean ekitaldi nagusia ospatuko bada ere, ekitaldiak larunbatean hasiko dira. Honela, larunbat arratsaldeko 7etan txistera partiduak jokatuko dituzte eta ondoren bigarren mailako pilotari profesionalen arteko esku pilota partiduak izanen dira. Gauez, ohiko gaupasa burutuko da.

Igandeko egitarauari dagokionez, goizean eskulan erakusketa izanen da eta Baztan eta Malerrekako ordezkarien arteko laxoa partidua. Eguerdian abiatuko da orga apainduen desfilea. Bazkaria, beti bezala merkatu plazan burutuko da, eta bazkalondon ere ez da animaziorik faltatuko, bertan eginen baita jaialdia. Arrats partean dantzaldia izanen da Foruen plazan.

Aurtengoan, Baztandarren Biltzarreko kideek dei berezi bat luzatu dute jendeak antolaketan parte har dezan. Mikel Iriarte antolatzaileak adierazi duenez, *"ez da nahikoa ospakizunetan parte hartzearekin, bakoitzak bere ahalmenaren arabera antlaketa lanetan parte hartu beharko bailuke baldin eta besta zentzu osoz hornitu nahi badugu"*.



**Igande honetan ospatuko da Baztandarren Biltzarra. Izanen da ongi pasatzeko aukerarik: Orga apainduen desfilea, bazkaria, kantaldia, dantzaldia...**

Artxiboa

### Txema Ballarena elizondotarra espetxeratua

Txema Ballarena elizondotarra espetxean sartu dute, Doneztebeko bestetako istiluetan atxilotua izan ondotik.

Epailearen aitzinetik igarotzerakoan, tratu txarrak jasan izana salatu zuen Ballarenak. Gogoratu behar da orain hilabete batzuk atxilotu zutela Ballarena intsumitua izateagatik eta orduan bala batekin zauritua suertatu zen. Donezteben atxilotu zuten guardiazibilek orduan Txemak ezarri zuen denuntzia gogorarazi zioten.

### Zine zikloa martxan da

Uztailaren 5ean hasita zine zikloa burutzen ari da asteotan, Baztango udalak antolatuta Bianako Printzearen laguntzarekin. Emanaldi guztiak Elizondoko Merkatu plazan izaten dira gaueko 10,30etatik aitzinera.

Aste honetan, uztailaren 13an (ortzeguna) 'Los aristogatos' pelikula botako dute. Uztailaren 19an (astezkena), 'Yo, tu y mamá' eta 20an (ortzeguna), 'Blancanieves y los siete enanitos'.

Ez da kultur ekitaldi bakarra izanen, ordea, denbora berean Baztango liburutegiak ondoko aktibitate hauek antolatu baititu. Uztailaren 19an, goizeko 11etatik 1ak arte, liburutegia karrikan, joko eta lehiaketak zineari buruz. 20an, ipuin kondalariak, gymkana eta 21ean, karrika antzerkia: 12etatik aitzinera, Los titiriteros de Binefar taldeak 'El bandido Cucaracha' izeneko antzeslana eskaini z.

ONGI PASATU HERRIKO BESTAK

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

OFERTAK:
Soinak ............. 3.000tik aitzinera
Konjuntoak ...... 7.800tik aitzinera
Blusak ............. 1.450tik aitzinera

Aukera zabala arropa formal eta informaletan

ASUN VIELA
PELUKERIA

- Ile mozteak
- Kolore ematea
- Permanenteak
- Metxak
- Ile biltzea
- Makilaia
- Solarium
- Depilazioa
- Jubilatu eta gazteei prezio bereziak

Pedro Mª Hualde z/g • Tel. 58 06 18 • IRURITA

Sara

# Igerilekua egunero zabalik da uztailaren lehenetik

## Pascal Lagoutte igerizainak, interesatuak daudenentzat igeriketa ikastaroak segurtatzen ditu

MIXEL ETA JACQUELINE

Orain arte eskoletako haurrentzat baliagarri izan balin bada uztailaren lehenaz geroztik igerilekua zabalik dago egunero 10etarik eguerdi eta erdi arte eta 2etarik 7ak eta erdi arte. Pascal Lagoutte igerizainak igeri ikasgaiak segurtatzen ditu, orduan interesatua denak bere izena eman dezala erran tenoreetan agertuz edo 59542097 zenbakirat deituz.



**Turismaz baliatuz elkarteek zonbait ekitaldi antolatzen dituzte beren kutxen betetzeko eta urtean zehar beraien helburuak burutu ahal izateko**

### Uda gain gainean dugu

Uda hor dela eta kanpotik jende ugari heldu da gure bazter eta xokoen bisitatzera eta gure herri giroa biziki aldatzen da. Turismoaz baliatuz elkarteek antolatzen dituzte zonbait ekitaldi beren kutxen betetzeko eta horrela dituzte urtean zehar beren helburuak burutzen. Kanpotarrek badaukate aurten ere zer ikus, zer entzun eta zer egin.

### Kortsikako taldea elizan

Uztailaren lehenean, Sarako elizan Madricale Kortsikako taldea entzuten ahal izan da. Talde hau duela urtetsu bat gure herrian agertu zen eta ondorioz talde huntako kantari eta saratar batzuen arteko lokarri azkartuz berriro itzuli dira Sararat. Karia hortarat kantaldi bikain bat eskaini daukute eta espero dugu oraino ere hemen gaindi ikusi eta entzuinen ditugula!






SOULE
GURUTZE eta HILARRIAK
✆ 45 30 38 ARIZKUN • ✆ 12 35 72 IRUÑA

Esker Onak
Urtemugak
Eskelak

Familiakoren bat edo lagunen bat hiltzen bazaizu **ttipi-ttapak** eskelak, urteurrenak edo esker onak agertzeko toki bat eskeintzen dizu. Deitu gure telefonora:
✆ 63 11 88

ttipi-ttapa
6.000 harpidedun
20.000 irakurle

ERRATZU
OKINDEGIA
zure eguneroko ogia
✆ 453168 - ERRATZU

Pierresenea
OSTATU - JATETXEA
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa
Iturriotz Auzoa • ✆ 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

Urdazubi

# Bi bikotek ospatzen dituzte aurten Urrezko Eztaiak

## Fermin Olaizola eta Asuncion Olhagaray eta Juan Agirre eta Maria Jesus Ariztia omendu zituen Arkupeak elkarteak

ALIZIA OLAIZOLA

Arkupeak elkarteak bestaospatu zuen ekainaren 30ean Doneztebcn, 85 urte aurten betetzen dituztenak eta Urrezko Eztaiak aurten egiten dituztenak omenduz. Urdazubin bi bikotek bete dituzte 50 urte ezkondurik. Frantxistegiako Juan Agirre eta Mª Jesus Ariztia, 1945eko apirilaren 11n ezkondu ziren eta Landibar auzoko Argiñeneako Fermin Olaizola eta Asuncion Olhagaray, 1945eko azaroaren 28an esposatuak. Zorionak bi bikoteei!



**Argiñeneako Fermin eta Asuncion, urrezko eztaiak ospatzen dituzte**
Alizia

### Udal karguak

• Osasuna: Antonio Etxaide eta Pedro Jose Tomasena.
• Ehizi Mankomunitatea: Juan Ramon Othegi eta Joaquin Etxart
• Cederna: Francisco Iribarren eta Othegi.
• Bertizko Partzuergoa: Iribarren eta Tomasena
• Barne eta kanpo harremanak: Iribarren.
• Osasuna, kanposantua eta zaborrak: Etxaide eta Ariztia.
• Hazienda: Etxart eta Othegi.
Kultura, hezkuntza, besta eta kirolak: Othegi eta Etxart.
• Trafikoa eta turismoa: Tomasena eta Angel Bengoetxea.
• Herrilan eta urbanismoa: Bengoetxea eta Etxart.
• Gizarte laguntza: Ariztia eta Etxaide.
Elektrizitate eta ur zerbitzua: Bengoetxea, Tomasena.
• Ikaburuako lezeak: Othegi eta Tomasena.

Zugarramurdi

# 'Sorgin xulo' izeneko jatetxea edeki berri da

## Akelarrean 8.000 lagunetik goiti bildu zen

KORO ETA MARGARI

Seguraski momentu honetarako herrian jatetxe berri bat edekia izanen da (uztailaren erdirako edeki nahi zuten). Bere izena 'Sorgin Xulo' da eta lehen 'Kupela' jatetxea zegoenean kokatuta dago (Dantxarinerako karreteran). Jatetxe hunen nagusiak Bera eta Lesakako bikote gazte bat da, Ainhoa eta Jose, hain zuzen. Momentuan ez dizuegu erraten ahal zer moduz ematen duten jatera, bainan badakizue jakiteko modu onena zein den: gan eta jan.



### Akelarrea

Pasatu da aurtengo Akelarrea ere, gan den 24eko gauean 8.000 lagun pasa bilduz. Azkeneko urteetan bezala karrikak, lezeak, ostatuak eta aparkalekuak jendez gaindizka egon dire, eta giro polita zen. Herriko jendea konten dago besta hunen arrakasta ikusiz, nahiz eta gau horretan besta baino lan gehiago egin. Orain, bizkar-besta eginen den afariaren zai daude denak.

## EZKONTZAK

**Alain Galeron** eta **Brigitte Blot**, Sarakoak, ekainaren 30an.
**Jean Paul Sathicq** eta **Chantal Etchebaster**, Sarakoak, uztailaren 1ean.
**Vincent Bidegaray** eta **Sylvie Launay**, Sara eta Hoisy Le Grand-ekoa, uztailaren 1ean.
**Juan Apezetxea Apezetxea** eta **Ana Maria Lujanbio Etxegia**, Goizuetakoak, ekainaren 3an.
**Jose Jacinto Etxekolanea Urroz** eta **Mª Corpus Bildarraz Zabaleta**, Beintza-Labaien eta Leitzakoa, maiatzaren 27an.
**Jose Antonio Fernandino Hurtado** eta **Mª Mercedes Perurena Arraras**, Donostia eta Leitzakoa, ekainaren 24an.
**Luis Mª Erbiti Zabaleta** eta **Miren Josebe Manterola Otegi**, Leitza eta Andoaingoa, uztailaren 1ean.
**Rafael Saralegi Etxarri** eta **Mª Lourdes Sukunza Alduntzin**, Lekunberri eta Leitzakoa, ekainaren 17an.
**Eduardo Domingo Amadoz Garaialde** eta **Eva Mª Azpiroz Rekondo**, Iruña eta Leitzakoa, uztailaren 1ean.
**Juan Jose Irazoki Zozaia** eta **Sonia Petrirena Bakero**, Lesaka eta Elizondokoa, ekainaren 24ean.
**Sergio Oiz Ibarrola** eta **Mª Pilar Urteaga Ameztoi**, Iruña eta Elizondokoa, ekainaren 24ean.
**Mateo Mendiburu Gortari** eta **Mª Rosario Gortari Dainziart**, Arizkun eta Zugarramurdikoa, uztailaren 1ean.
**Jose Sota Pareja** eta **Mª Cristina Nuñez Franzesena**, Valentzia eta Baionakoa, Elizondon, ekainaren 17an.

## JAIOTZAK

**Juan Ramon Graziarena Goñi**, Sunbillakoa, ekainaren 26an.
**Goretti Loidi Arrizurieta**, Leitzakoa, ekainaren 16an.
**Aitziber Elizondo Otxoteko**, Lesakakoa, ekainaren 14an.
**Idoia Garmendia Zubikoa**, Elizondokoa, ekainaren 15ean.
**Joseba Alberro Etxandi, Gartzaingoa, ekainaren 16an.**
**Patxi Alberro Etxandi**, Gartzaingoa, ekainaren 16an.
**Iratxe Gamio Etulain** , Anizkoa, ekainaren 20an.
**Ainara Onsalo Danboriena**, Elizondokoa, ekainaren 26an.

## HERIOTZAK

**Elies Vidal**, Sarakoa, ekainaren 29an., 80 urte.
**Antonio Dithurbide**, Sarakoa, uztailaren 3an, 89 urte.
**Victoriana Etxenike Fagoaga**, Zugarramurdikoa, uztailaren 3an, 88 urte.
**Juanita Gonzalez Baleztena**, Doneztebekoa, ekainaren 26an, 85 urte.
**Cecilia Eskudero Mariezkurrena**, Goizuetakoa, ekainaren 25ean, 48 urte.
**Tiburcio Hernandorena Irigoien**, Legasakoa, ekainaren 30ean, 78 urte.
**Maria Garcia Ballesteros**, Lesakakoa, ekainaren 29an, 84 urte.
**Bautista Urriza Mariezkurrana**, Arizkungoa, ekainaren 21ean, 80 urte.
**Sebastian Lanz Betelu**, Elizondon, ekainaren 27an, 88 urte.
**Joaquin Etxenike Ernet**, Elizondon, uztailaren 1ean, 87 urte.
**Dominica Bengoetxea Abadia**, Almandozkoa, uztailaren 2an, 89 urte.
**Ignacia Arizmendi Elizetxe**, Elizndokoa, uztailaren 5ean, 77 urte.




✗ Kapa kentzeak, pintura, barnizak, etab… ezabatzen ditu
✗ Zura garbia gelditzen da, hasierako itxura berreskuratuz
✗ Tratamendua kontu haundiz egiten da eta ez da beharrezkoa kristalak, zerrailak eta bertzelakoak desmontatzea.
✗ Produktu kimiko eta tratamenduaren bitartez pipiak eta xilofago mota guztiak desagertarazten ditu
✗ Industrialki eginez gero, arras prezio interesgarria du. Kontsultatu!

**ORDAX ANAIAK**
✆ (948) 45 03 51 - 45 09 64
**DONEZTEBE**

NADEMA
Berriainz Pol. E kalea, 161 nabea
✆ 303245 • Berrioplano

## BEHARREZKO TELEFONOAK

**SOS Nafarroa eta Urgentziak** ........ 088/061

**Osasun Zentruak**
Elizondo .......... 452367 / 580235
Doneztebe .......... 450300
Lesaka .......... 637428 / 637336
Leitza .......... 510248 / 510573

**Nafarroako Ospitaleak**
Nafarroako Ospitalea .... 102100
SSko Urgentzi Zerbitzua .......... 246750
Virgen del Camino Erresidentzia .......... 109400
Gurutze Gorria .......... 226404

**Gipuzkoako Ospitaleak**
Irungo ospitalea .......... 614600
Gipuzkoako ospitalea .... 460299
Erresidentzia .......... 453800

**Anbulatorioak**
Irun .......... 630264 / 621106

**Anbulantziak**
Oitz .......... 450242 / 450805

**DYA**
Lesaka (Larrialdiak) .......... (943) 464622
Doneztebe (Larrialdiak) .......... 171717

**FUNERARIA**
Doneztebe .......... 637404
Elizondo .......... 580924
Lesaka .......... 637404

**Suhiltzaileak**
Oronoz-Mugairi .......... 592255

**Garraioak**
Bidasotarra .......... 631150
Baztanesa .......... 580129
Leitzaran .......... 515018

**Aberiak:**
Iberduero ....... 450335 / 450336

# 'Mozorro berri' kanpainak antzerkia ekarriko du herrietara

## Zergen-gaineko Partehartze Fondoetatik bideratuak dira

Nafarroako Gobernuko Hizkuntz Politika Zuzendaritzak antolatutako 'Mozorro berri 95' kanpainak antzerkia eramanen du udan honetan Nafarroa osoko hainbat herrietara. Kanpaina honen helburu nagusien artean, euskara bultzatzea eta euskarazko antzeslanak dituzten antzerki talde nafarrei promozionatzea leudeke, Hizkuntz politikatik adierazi dutenez.




Eskualdeko emanaldiei dagokienez, uztailaren 25ean Elgorriagan arituko da Txirristra taldea; uztailaren 26an Aranon, Zirko ttipia; urriaren 8an Etxalarren, Txirristra; azaroaren 8an Elizondon, Kollins Clown eta azaroaren 11n Arantzan, Sambhu (Gure). Oraindik zehaztu gabe badago ere, azaro aldera, Baztan eta Donamarian arituko dira Trokolo eta Sambhu taldeak.

# Elkartea sortu dute Baztan eta Malerrekako hiru kanpalekuek

Momentu honetan Malerreka, Baztan eta Dantxarine aldean zabalik dauden hiru kanpalekuek, hau da, Josenea Kanpalekua (Dantxarinea), Baztan kanpalekua (Erratzu) eta Ariztigain kanpalekua (Sunbilla), ekainaren 29an elkartu ondotik, elkarte bat osatzeko erabakia hartu zuten. Elkarte berri honek, Bertizko Partzuergo Turistikoan sartzeko asmoa agertu du sortu bezain pronto.

Bertizko Partzuergo Turistikoak, bere aldetik, epe laburrean ospatu asmo duen batzarrean, bi elkarte berriren sartze-eskaerak aztertuko ditu bertze gaiek artean; alde batetik Kultur Zurkaitza izeneko elkartearena eta bertzetik hemen aipatzen ari dugun Kanpalekuen elkartearena, hain zuzen ere.

# Malerrekako Etxebizitza Tutelatuendako dirulaguntza

Joan den hilabete bukaeran Nafarroako Gobernuko Ongizate, Kirol eta Etxebizitza Departamenduko kontseilariak erabaki duenez, 8,6 milioi pezeta hartuko ditu Malerrekako Mankomunitateak Etxebizitza Tutelatuen bultzatzailea delakoz. Denetara 25,8 milioi pezetako dirutza eskuratuko baditu ere, lehenengo zati hau kopuru osoaren herenari dagokio.

Bertzalde, Nafarroako Gobernuko Toki Administraziorako Departamentuak, **Saldiasko Herriko Etxearen** teilatua moldatzeko 2,4 milioi peztako dirulaguntza onartu du joan den hilabetean. Dirutza hau Hirurteko Plangintzatik bideratuko da. Teilatuak 232 m² ditu.



EZKALO

Jose Antonio Elizondo • API 129

INFORMAZIOA:
✆ 451518 Doneztebe ✆ 23 48 30 Iruñea
Tfno. Mugikorra 908 - 77 76 96

*Larunbat eta igandetan zabalik ordua eskatuz gero*





DONEZTEBE. Aparango industrialdean azkeneko pabilioiak salgai
150 m² pabilioia 59.000 pezetatan m² gehi IVA

ttipi-ttapa

*6.000 harpidedun*
*20.000 irakurle*

ttipi-ttapan
*Zure anuntzioa momenturo ikusten du norbaitek*

# Doneztebeko A taldea nagusitu zen XVI. Laxoa txapelketaren finalean

Bederatzi eta hiru irabazi zion herriko bigarren taldeari, hirugarren eta laugarren posturako norgehiagokan Oitz Iruritari gailendu zitzaion bitartean

Doneztebeko A taldeak 9-3 irabazi zion herri bereko bigarren taldeari, ekainaren 25ean jokatutako XVI. laxoa txapelketaren finalean. Bear-Zana pilota plaza jendez gainezka ageri zen herritarren arteko finala ikusteko asmoz.



Ezker eskuin, zutik: Kattako (epailea, Felipe Ganboa, Luismi Apezetxea, Txuma Prim (epailea), Javier Mariezkurrena. Juantxo Telletxea, Juan Mari Artazkoz (epailea). Totorika, Alfredo Telletxea, Patxi Iribarren, Mikel Iribarren (marrazaina), Patxiku Ganboa eta Pello Iribarren.

Argazkia: ONDIKOL

**FINALEKO PROTAGONISTAK**

Talde txapeldunak, azken zazpi urtetan lau txapel eskuratu dituen ohiko laukoa plazaratu zuen: Javier Mariezkurrena (sakalaria), Peio Iribarren (numeroa) eta Patxiku Ganboa eta Luismi Apezetxea laurdenak bezala. Doneztebeko B aldearen aldetik berriz, Patxi Iribarren (sakalaria), Felipe Ganboa (numeroa) eta Alfredo eta Juan Telletxeak laudenak bezala jokatu zuten.

Emaitzak adierazten ez badu ere, hagitz partidu gogorra eta polita jokatu zuten 64 minututan zehar eta lehendabiziko jokua B taldekoentzat izan zen. Ondotik, ordea, sei joku segidan egin zituzten txapeldunek eta hortxe erabaki zen finala.

Aitzinetik, Oitz eta Irurita artean jokatu zen hirugarren eta laugarren posturako lehia, Malerrekakoak 9-7 nagusituz, partidu borrokatu baten ondoren.

**1989KO FINALAREN ERREPIKAPENA**

Garaipen honekin, bederatzigarren txapela bururatu du Doneztebek, Oitzek lau eta Iruritak hiru dituzten bitartean. Orain sei urte ere, Doneztebeko bi taldeen arteko finala jokatu zen. Orduan, A taldeak aurtengo talde berbera atera zuen. Doneztebeko B taldean berriz, aurten jokatu duten Patxi Iribarren eta Felipe Ganboarekin batera, gaur egun erremontean ari diren Iñaki Lizaso eta Koteto Ezkurrak jokatu zuten.



Txapeldunak

Argazkia: ZALDUA

## Besta eguna Donezteben

Donezteben besta egun haundia izan zen laxoa txapelketaren finalarena.
140 urte bete dituen Bear-Zana pilota plaza, jendez gainezka ageri zen. Hirugarren eta laugarren postua erabakitzeko partiduaren ondotik, Doneztebeko dantzariak aritu ziren, Angel Biela iruritarra txistulari zutela. Angelusa berriz, Basilio Sarobe, Sunbillako apezak errezatu zuen laxoa jokalariek argazkirako prestatzen ziren bitartean.

# Berako 'Zurrut' taldeak irabazi du Bortzirietako futbito txapelketa

## Finalean 4-2 irabazi zion Lesakako 'Los Simpson' taldeari

Ekainaren 30ean burutu zen Lesakako Irain eskolako frontoian Beti Gazte elkarteak antolatutako Bortzirietako futbito txapelketaren finala. Bertan Berako 'Zurrut' taldea eta Lesakako 'Los Simpson' aritu ziren aurrez aurre eta partidu gogor baten ondoren beratarrak 4-2 nagusitu ziren.

Finalean nagusitu ziren jokalariak honako hauek izan ziren: Javier Lekuona, Txema eta Juanes Otxoteko. Felipe Saragueta, Aitor Erkizia eta Andoni Larrañaga. Gogoratu behar da talde eta txapelketa honetan jokatu zuela bere azken partidua Jon Irazokik eta taldeko partaideek berari eskaini zioten garaipena. Oskar Urkiola jokalariak ere ezin izan zuen finala jokatu.



**Zurrut taldeak irabazi du Bortzirietako futbito txapelketa**

Atezaina ere berandu ailegatu zela kontuan hartzen badugu, hasierako minutuak bortz jokalarirekin bakarrik –aldaketarik gabe, beraz– jokatu zuten beratarrek. Halere 2-0 aitzinetik paratu ziren. Deskantsuaren ondotik berdintzea lortu zuten 'Los Simpson' taldekoek eta 'Zurrut'-ekoak nekatuagoak baziruditen ere, bi kontraeraso bizkorren ondoren 4-2ko emaitza ezarri zuten markagailuan.

Nekea eta nerbioen ondorioz, bukaera aldera sobera gogortu zen partidua eta lan ona egin zuen Rafa Retegi epaileak, behin baino gehiagotan bi minuturako egotzi behar izan zituen jokalariak.

Txapelketa honetan Bortzirietako 19 taldek parte hartu dute.

### Bote pronton

- **Joxe Julian Salaberria** goizuetarrak, Ruben Belokirekin batera Euskadiko lehen eskuz binakako txapelketa irabazi zuen Alustiza eta Elkororen kontra (22-18). Orain arteko txapelik garrantzitsuen bururatu du modu honetan.
- **Iruñeko peñen eguneko** ospakizunean, ekainaren 1ean, hainbat herri kirol ekitaldi ikusi ahal izan ziren San Francsico plazan. Bertzeak bertze, Patxi Larretxeak harri jasotzen Nafarroako errekorra gainditu zuen, 100 kiloko kopa harriari 31 jasoaldi emanez. Mitxel Latasak berriz, 24 eman zizkion. Ingudea, gurdi altxatzea, zaku goratzea eta bertzelako kirol ikusgarrietaz gozatu ahal izan zuten Iruñera hurbildu zirenak.

## Jesus Mª calvo eta Maika Ariztegi XVI. Doneztebeko crosseko irabazleak

Doneztebeko XVI. crossa ekainaren 25ean osaptu zen, kategori ezberdinetan larogeitabat laisterkari aritu zirelarik. Senior mailan, mutiletan Jesus Mª Calvo lesakarra (25'39") izan zen irabazle, bigarrena Josetxo Vaqueriza eta hirugarrena Irungo Iñaki Lopetegi.

Nesketan, berriz, irabazlea Maika iturendarra izan zen, Iruñeako Rosa Orofinoren aitzinetik.

Beteranoen mailan, irabazlea Angel Aizpiolea irundarra izan zen, bigarrena Jose Angel Torres Iruñeakoa eta hirugarrena Doneztebeko Manolo Otero.

Jubenil mailan, bi lehendabiziko postuak Doneztebe bertako laisterkalarientzat izan ziren, Jorge Orbegozo eta Juan Ugalde, hainzuzen.

Infantil mailan, mutiletan Elizondoko Iñaki Telletxeak irabazi zuen, Angel Telletxea herritarraren aitzinetik. Nesketan, Aintzane Aizpiolea izan zen irabazle.

Alebinetan, mutiletan, Joseba Juanena doneztebarrak irabazi zuen eta bigarrena Labaiengo Jabier Mindegia. Nesketan, Doneztebeko Pili Mitxeltorena garaile. Benjaminetan, Carlos dela Fuente beratarra lehenbizi eta Haritz Baleztena doneztebarra bigarren; nesken artean, berriz, Laura Apeztegia, Haizea Erkizia eta Lorena Lakar, hiruak doneztebarrak ailegatu ziren lehenbizi.

## Hamabostaldiko Jokaldiak



**Olaizola anaiak**

Goizuetako pilotariak.

Asier eta Aimar Olaizolak Elgetako pilota txapelketa famatua irabazi berria dute, Asierrek 23 urtetik behitiko kategorian eta Aimarek kadetetan. Etorkizun bikaineko pilotariak direla erakutsi dute.



**Los Simpson**

Lesakako futbito taldea

Txapelketa bikaina burutu zuten eta merezimendu osoz ailegatu ziren Bortzirietako finalera. Finalean ordea, ez zioten joku mailari eutsi eta gainera, sarrera gogor eta itsusi samarrak egin zituzten.

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## BESTAK

**ELIZONDO**

**Uztailaren 24tik 28ra.** Ikus xehetasunak erdialdeko gehigarrian.

**ITUREN**

**Uztailaren 14tik 18ra.** Ikus xehetasunak 16. orrialdean.

**ELGORRIAGA**

**Uztailaren 22tik 26ra.** Ikus xehetasunak 17. orrialdean.

## BAZTANDARREN BILTZARRA

**ELIZONDO**

**Uztailaren 16an.** Ikus xehetasunak 7. eta 20. orrialdeetan.

## TRESNA ZAHARREN ERAKUSKETA

**LEITZA**

**Ekainaren 30ean** Arratsaldeko 8etan herri kirolari buruzko hitzaldia.

**Uztailaren 1ean** Arratsaldeko 8etan Alegiako Txintxarri eta Leitzako Asketa abesbatzak elizan. Gaueko 11etan txaranga.

## ZINEA

**ELIZONDO**

**Uztailaren 13tik20ra** Ikus xehetasunak 21. orrialdean.

**MALERREKA**

**Uztailaren 10etik 31ra.** Ikus xehetasunak 17. eta 30. orrialdeetan.

## ERREZETA



### Zigala entsalada foie-rekin



Pello GARMENDIA
Eskisaroi Jatetxea
•ELIZONDO•

**Osagaiak entsaladarako**

*• 8 zigala eder • 200 gr. letxuga "juliana" eran • 200 gr. Trevisoko letxuga "juliana" eran • 200 gr. eskarola • 200 gr. azenario railatua • 200 gr. foie •*

**Osagaiak oliozpinarako**

*• 3 goilarakada trufa edo oliba olioa • gailarakada terdi Modena edo Jerez ozpina • Postre goilarakada bat estragoi xehetua • Postre goilarakada bat tipulin • Postre goilarakada bat perifollo • gatza •*

**Prestatzeko manera**

Oliozpinarako osagai guziak ontzi batean bota eta ongi nahasi. Entsalada plater bat osatzeko, Treviso letxuga erdian jarri, ezkerrera bertze letxuga, eskuinera eskarola, goian eta behean azenarioa. Gelditzen diren xokoetan zigala egosia jarri erditik zabalduak. 50 gr. foie Treviso letxugaren gaineran. Gainetik oiliozpina bota.
Hobe da hoztu gabe serbitzea.

## BASERRIA



**❖ ZERRIKIA ❖**

• **Zerrikumea** (20 kilokoa): 4.900 pzta.
• **Zerri gizena** (95-100): 193 pzta/kilo
• **Zerramak:** 120-130 pzta./kilo bizirik.



**❖ BEHIKIA ❖**

• **Aretze gizenak:**
• **Idixkoak:** Pzta/kg. Kanal

| | |
|---|---|
| Extra | 550 |
| 1.koa | 525 |
| 2.koa | 510 |

• **Urruxak:** Pzta/kg. Kanal

| | |
|---|---|
| Extra | 560 |
| 1.koa | 530 |
| 2.koa | 510 |

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.

• **Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
**Nabarrak:** urruxak 20.000 eta idixkoak 33.000 Pzta.
**Mestizoak:** urruxak 34.000 eta idixkoak 46.000 Pzta.
**Behi zaharrak:**
Behi nabar gizena: 420 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 470 Pzta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIAK: EHNE, ZUBIRIA MINDEGIAK...



**❖ FRUTONDOAK ❖**

Hiru urteko landare bakoitza

• **Bertako sagarrondoa** 950.
• **Udareondoa** 950 pzta.
• **Gereziondoa** 1.050 pzta.
• **Aranondoa** 1.050 pzta.
• **Muxika** 870 pzta.



**❖ BARAZKIAK ❖**

• **Porruak** zientoa 300.
• **Piper txorizero** zientoa 800.
• **Piper morro** zientoa 800.
• **Piperminak** zientoa 600.




KATTU
OSTATUA
JATETXEA
MATXINBELTZENEA
LESAKA
Arretxea, 22 • Tel.: 62 75 73, Faxa: 62 75 53 • LESAKA

EROSLE
LESAKA
Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena
Frexkuena zugandik hurbilago
Bittiria, 67 - ✆ 637264

JAKIN BEHARREKOA

# Oporretara joaterakoan ez da osasuna ahaztu behar



Ezustekoak ez gertatzeko, oporretara joan baino lehen mediku asistentzia izanen dugula ziurtatzea komeni da

Uda iritsi berria den garai honetan, seguraski zuetako gehienak honez gero erabaki izan duzue nora joan oporretara. Prestaketa gehienak ere eginak egonen dira dagoeneko edo gutxienez, eraman beharreko gauzen zerrenda pentsatuta izanen duzue.

Kontuan izan beharreko gauza garrantzitsu bat, nahiz eta askoz hobe den hortaz baliatu behar ez izatea, mediku asistentziaren babesa ziurtatua edukitzea da.

Estatu espainolaren zehar ibili behar baduzue, Osasun Txartela eraman behar da. Txartel hau ez baduzue oraindik jaso Osasun Etxera joan eta handik eskatuko dute.

Estatu espainoletik kanpo ateratzeko asmoa baduzue, bainan Europako Elkarte Ekonomikoa osatzen duten herrialde batera, hau da, Alemania, Belgika, Dinamarka. Frantzia, Grezia, Irlanda, Italia, Luxenburgo, Herbeherak (Holanda), Portugal edo Erresuma Batua, jakin behar da mediku asistentziaren babesa izan nahi baduzue beharrezkoa dela mediku laguntza ziurtatzen duen agiri berezi bat eskatzea. Agiri hau, Gizarte Langilearen bulegoan eska dezakezue. Osasun Txartela edo, hau oraindik bidali ez badizue, Aseguro Sozialaren kartila ekarriz, zuen datu pertsonalekin batera eta aldi berean, irteera eta itzulera egunak eta bisitatu beharreko herrialdeak zein izanen diren jakinaraziz.

*Mediku laguntza ziurtatzen duen agiri berezi bat eskatzea beharrezkoa da EEEko herrialdetara joanez gero.*

Osasun asistentzia dohain izaten da herrialde gehienetan, halere, batzuetan gastuen totala edo zati bat ordaindu behar izaten da, diru hori geroago itzultzen dutelarik.

Premiazko ospitalaratzea gertatuz gero eta aipatutako agiria egin gabe baldin baduzue, Europako Elkarte Ekonomikoak Aseguro Sozialaren arloan dituen erabakien arabera atenditua izan nahi duzuela adierazi behar duzue.

Horretaz baliatu behar ez izatea opa dizuet, bainan hobe da arazoei aurrea hartzea gero negarretan ari behar izatea baino.

VIRGINIA ERASO BARRIO
LEITZALDEKO GIZARTE LAGUNTZA.


**ARTEKARI**
TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

**LESAKA:**
- Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
- Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.

**Non:** MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

**IRUÑEA:**
- Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40

**Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak


# AGENDA EGUNEZ EGUN

## ERAKUSKETAK

### ELIZONDO

**Uztailaren 14a** bitarte, Patxi Elizetxe margolariaren lanak ikusgai Arizkunenean.

**Uztailaren 15tik abuztuaren 4ra** Baztango artisauen lanak Arizkunenean.

## IKASTAROAK

### ELIZONDO

**Uztailaren 17tik 22ra.** Sendabelarrei buruzko ikastaroa Arizkunenean Laura Gurbindoren eskutik.

## ANTZERKIA

### ELIZONDO

**Uztailaren 21ean.** Eguerdiko 12etan 'Los titiriteros de Binefar' taldearen 'El bandido cucaracha' antzeslana karrikan barna.

## GUARDIAKO BOTIKAK

**Uztailaren 10etik 16ra** Etxalar, Doneztebe, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.

**Uztailaren 17tik 23ra** Arantza, Narbarte, Elizondo (Lezaun), Leitza eta Goizueta.

**Uztailaren 24tik 30era** Igantzi, Ituren, Elizondo (Iturralde), eta Goizueta.

ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU 63 11 88 ☎ra. IPARRALDETIK 19-34-48-631188

## ETXEBIZITZAK

**DONEZTEBE.** Pisua eta bajera salgai. ☎ 635097 arratsetan.

**ITUREN.** Borda bat alokatzen dut. ☎ 450802.

**LEGASA.** Pisu bat alkilatzen da. ☎ 943-614735.

**ALFARO (Errioxa).** Bi solairuko etxea salgai. Bi terraza, garajea, erretegi estalia, hiru logela, sukaldea eta bainua. Mobleztatua. Prezioa: 5.200.000 pta. ☎ (943)553289 (Alfredo).

**BAZTAN.** Borda erosiko nuke. ☎ 306502 (Lurdes).

**Baserria** erosiko nuke, ez du inporta zein egoeratan, lur eremu ttiki bat baldin badu. ☎ 234830 (Iñigo).

**BERA.** Pisua salgai Kanttonberri karrikan. ☎ 630220.

**ARANTZA.** Pisua salgai. ☎ 943-510564 (Yolanda) edo ☎ 943-527003 (Mª Luisa) Arratsaldeko 8etatik aitzinera.

## DENETARIK

**Kartelak**, Buzoiratzeko paperak, Bisita txartelak, Faktura Talonarioak... egiten ditugu. Merke eta azkar. ☎ 631188.

**Pisu bat osatzeko** Leioan neska bat behar da. Unibertsitatetik hagitz hurbil dago eta komunikazio ona du. Pisu berri berria. ☎ 634040 (Nerea Altzuri).

**Lesaka**. Belar ona kentzearen alde emanen nuke Tellegi baserrian. Pista ona bertaraino. ☎ 387062.

**Neska** bat behar da, ikaslea, pisu bat osatzeko Barañain-en. ☎ 630556.

**Igantzin** 11.000m²ko lur eremua salgai. Lesakako herritik 2 kilometrotara. ☎ 637453.

**Ormigonera**-amasadora ia berria, egoera onean dagoena saldu edo alokatuko nuke. ☎ 393111 (arratsetan).

**Moble zaharrak** erosiko nituzke. Biltzera pasatuko gara eta eskura ordaintzen dugu. Jardin, baratze, baserri eta etxeak ere garbitzen ditugu. Prezioaz solastuko dugu. ☎ 451518.

## AZIENDAK

Bi **ahari** motz salgai. ☎ 450907.

Bi eta hiru urteko **ahariak** salgai Goizuetan. ☎ 514179 (arratsaldeko 3etatik 4etara).

**Urte beteko** asto arra salgai. ☎ 514168 (Goizueta, ilunabarretan).

**Bi asto** ar salgai, 1 eta 4 urtekoak. ☎ 634109 (Arantza).

**Zezen** gazte bat salgai. Hauta ematen dut, urte bat edo bikoa. Akitaniako Blonda arrazakoa. ☎ 599045 (Pedro Jose, 9etatik 1etara eta 2etatik 5etara)

## LANA

**23 urteko neska** herriko bestetarako ostatu eta jatetxetan lan egiteko prest dago. ☎ 630630. (Edurne).

**Irakasle** tituluduna eta EGArekin urte osoan Beran eta Lesakan klase partikularrak emateko prest. Euskera, OHO, frantsesa, REM... ☎ 630182-637839 (Klarisa).

**Neska** batek lan eginen luke Baztan-Bidasoaldean. Pertsona arduratsua eta hainbat lanetan esperientziaduna. Astelehenetik ortziralera edo larunbatera. ☎ 592049 (Ana).

## IBILGAILUAK

**Furgoneta** salgai, Mercedes Benz, NA-K matrikuladuna. Barrendik oso ongi prestatua (armarioak, frigoa...). 140.000 kilometro. ☎ 510486.

**Peugeot 309** GTI, NA-AM matrikuladuna (93koa) salgai. Gris metalizatua, osagarriekin, irrati-kaseta, transeferentzia egina. ☎ 580862 (arratsetan).

**Citroen AX**, NA-AC matrikuladuna, salgai. ☎ 510558.

**Citroen BX**, ongi zaindua eta oso merkea salduko nuke. ☎ 943-623186.

**Suzuki Vitara** JLX kotxea salgai. ☎ 510558.

**Niva 1.600** motorra salgai, 10.000 kilometro eginak. ☎ 510558.

## AGURRAK

**Lekarozko** Maite O.ri: Ez ezazu uste mutiko askorekin ateratzeagatik Claudia Siffer zarela.

**Ana Josefa** A.rentzat: Etortzeko Naparrako ibilaldietara, deseiua duen bezala senargai on bat egiteko. Lagun baten partetik.

**Berako** Itsaso Igantziri: zutaz maitemindua nago eta zurekin atera nahi nuke, zure begi eder horiek liluratzen naute. Zuk dakizun Lesakako pertsona baten partez muxu haundi bat.

**Ezkurrako** Patxi Iparragirreri: uztailaren 6an zorionak eta musu haundi bat zure seme-alaben partetik.


# M A L E R R E K A

## UDAKO PELIKULA EMANALDIAK

Pelikula guziak gaueko 10,30etan emanen dira

| | |
|---|---|
| **ITUREN.** | Uztailak 10, astelehena: **«Alcatraz»** |
| **ELGORRIAGA.** | Uztailak 11, asteartea: **«Kidd kapitaina»** |
| **OITZ.** | Uztailak 12, asteazkena: **«Oihan esmeralda»** |
| **EZKURRA.** | Uztailak 13, ortzeguna: **«Azken mohikanoa»** |
| **LEGASA.** | Uztailak 14, ortzirala: **«Jeremiah Johnson»** |
| **DONAMARIA.** | Uztailak 17, asteleh.: **«Lurraren erdira bidaia»** |
| **SALDIAS.** | Uztailak 18, asteartea: **«Blodd kapitaina»** |
| **ERATSUN** | Uztailak 19, asteazk.: **«Munchausen baroia...»** |
| **DONEZTEBE.** | Uztailak 20, ortz: **«Goldi azken urrezko hartza»** |
| **BEINTZA-LAB..** | Uztailak 21, ortzirala: **«Sandokan»** |
| **NARBARTE.** | Uztailak 26, asteazkena: **«Orka»** |
| **SUNBILLA.** | Uztailak 27, ortzeguna: **«Goonietarrak»** |
| **URROTZ.** | Uztailak 28, ortzirala: **«Arka galduaren bila»** |
| **ZUBIETA.** | Uztailak 31, astelehen: **«Urrezko 7 banpiroen...»** |

Antolatzailea: **LANGARRA EUSKARA TALDEA**
Laguntzaileak: **Nafarraoko Gobernua** eta **Malerrekako Mankomunitatea**

MRW

**HIRI ARTEKO, ESTATU BARNEKO eta NAZIOARTEKO BIDALKETAK**

**Paketeak eta dokumentuak bidaltzeko modurik azkarrena**

- **GARRAIO URGENTEA:** Estatu guztian goizeko 10ak baino lehen entregatuko dugu.
- **24 ORDUKO ZERBITZUA:** Arratsaldeko 6ak arte entregatuko dugu

ZERBITZU GARANTIZATUA

Martin Urrutia Etorbidea z/g • ORONOZ MUGAIRI
Tfnoa eta Faxa: 592179

**ttipi-ttapa**

*ttipi-ttaparekin zure publizitatea zonako sukalde-xoko guzitan izanen duzu*



# EZKALO

Jose Antonio Elizondo Jauna • API 129

INFORMAZIOA: 451518 (DONEZTEBE) • 23 48 30 (IRUÑEA) • 908. 77 76 96 (Mugikorra)

***Larunbat eta igandetan zabalik ordua eskatuz gero***

## ALOKAIRUAK

**Doneztebe**. Etxea bere lur eremuarekin alokatzen da. 50.000 pezeta hilabetean.

**Sunbilla.** Pisu mobleztatua alokatzen da. 40.000 pezet.

**Iruñea.** Alde Zaharrean pisua alokatzen da. 60.000 pezeta hilabetean.

## BORDAK

**Ituren.** 4.000$m^2$ko lur eremua duen borda salgai. 2.000.000 pta.

**Ezkurra.**. Bizitzen jartzeko moduko borda salgai. 1.000 $m^2$ko lur eremua, ura eta argia. Prezioaz solastuko dugu.

**Leitza**. Borda Leitzalarrea aldean. 4x4 autoa behar da igotzeko. Prezioaz solastuko dugu.

**Olague.** Borda lur eremuarekin salgai. 3.000.000 pta.

## PISUAK

**Legasa**. Lau bizitzako etxe batean 100$m^2$ pisua salgai Zola eta leihoak gaztainezkoak. Mobleztatua. 9.000.000 pta. hagitz negoziagarriak

**Zubieta**. Pisuak eta bajerak salgai.

**Doneztebe**. Pisua, sukalde ekipatuarekin eta bajera lortzeko aukerarekin salgai. 8.200.000 pta.

**Doneztebe**. Luxuzko pisua terrazakin salgai. Beola kafetegi berriaren gainean.

**Legasa**. 90$m^2$ pisua salgai. Mobleztatua, 40$m^2$ko ganbara ura eta argin-darrarekin pisuaren gainean eta 13$m^2$ko garajearekin 9.000.000 pta.

**Sunbilla**. Pisua salgai 40$m^2$ko sotoa eta 18 $m^2$ko ganbara. 11.000.000 pta. negoziagarriak

## BASERRIAK

**Etxalar**. Baserria, borda eta 60.000 $m_2$ko lurrekin salgai. Tfnoa, ura eta argindarra.. 33.000.000 pta.

**Goizueta.** Baserria salgai. Ura, argindarra eta telefonoa. Prezio negoziagarria.

**Etxalar**. Baserria borda eta lur eremuarekin salgai.

**Bera.** Luxuzko baserria salgai. Ssagardotegia edo Osasun Etxea egiteko apropos̄a.

**Etxalar.** Baserri habitagarria salgai, herritik 10 minutuatara.

## BAJERA KOMERTZIALAK

**Lesaka**. Pabilioi industrialak saltzeko edo alokatzeko.

**Bera**. 850 $m^2$ko pabilioiak, 1.000 $m^2$ko lur eremuarekin salgai.

## ETXEAK

**Ultzama**. Txaleta bere Lur eremuarekin salgai.

**Betelu.** Etxe habitagarria 10.000$m^2$ko lur eremuarekin salgai.

**Azpirotz**. Lau solairuko etxea salgai. Badu ura eta argia. Zaharberritu behar da. 4.000.000 Pta

**Auzperri-Espinal.** Bi familiendako egokia den etxe habitagarria eta borda salgai.

**Auzperri-Espinal.** Txaleta jardinarekin salgai.

**Urtzainki (Erronkari).** Aterpetxea (albergea) salgai. 60 lagunedako kapazitatea du.

**Monteagudo.** Etxe habitagarria salgai. Asteburuetarako egokia. 3.000.000 Pezeta.

**Biasteri (Araba).** Etxe-elkartua salgai. Mobleztatua eta pistzina konpartitua.



# IRURITAKO GARAGARDO BESTA

## Uztailaren 22an, Larunbata

**MUSIKA 12 ORDUZ**

Arratsaldeko 5etatik goizeko 5etara

**KUMA**

**BELTZEZ**

**CHILABUS**

**BIZKAR HEZURRA**

**DEF CON DOS**

**PLATERO Y TU**

**Gaiteroak eta Dantzaldia KOXKArekin**

20 garagardo desberdin

Sarrera: 1.000 Pta.

Antolatzaileak: Iruritako Gazteak



CAJA DE AHORROS DE NAVARRA
NAFARROAKO AURREZKI KUTXA